

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Gradua

Gradu amaierako lana

2013/2014 Urtea

Urteko kontuen analisisa eta probisionalak lantzea


HOTEL AMARA PLAZA S.A.

EGILEA: Eduardo Olabe Odriozola

ZUZENDARIA: Miren Edurne Aldazabal

Bilbon, 2014ko Irailaren 10ean.

Eduardo Olabe Odriozola



LANAREN LABURPENA	3
AUKERATZEAREN ARRAZOIA	4
XEDEA.....	4
AURKEZPENA	5
SEKTOREAREN EGOERA	8
ENPRESAREN ANALISIA.....	11
Balantzea. AKTIBOA.....	11
Balantzea. ONDARE GARBIA eta PASIBOA	14
Galdu Irabazia.....	16
Politika Komertziala.....	19
Pertsonal Politika.....	20
Errotazio Fondoa	21
Errotazio Fondoaren Beharren Aldaketan Analisia	23
Epe Laburreko Kaudimena.....	26
Likidezia	27
Erabilgarritasuna.....	27
Epe luzeko kaudimena.....	28
Finantza Autonomia.....	29
Zorpetzea	30
Errentagarritasun Ekonomikoa (ROI)	30
Errentagarritasun Finantzarioa. Apalankamendu Finantzarioa	33
Diru Fluxuen Egoera Orrien Analisia.....	35
Cash Flow	35
DIAGNOSTIKOA.....	36
ETORKIZUNA	37
ONDORIOAK.....	41
BIBLIOGRAFIA	45

LANAREN LABURPENA

Enpresa baten urteko kontuak analizatzea izan da aukeratu dudana gaia. Horrez aparte, azkenengo 3 urteak analizatuz, gertuko etorkizunean edukiko duen egoera hautematea. Aukeratu dudana enpresa Hotel Amara Plaza S.A. izan da eta 2010, 2011 eta 2012 urteak analizatuko ditut, 2013. urteko kontuak oraindik eskuragarri ez daudelako.

Lanari hasiera emateko, aurkibidean jarrita dagoen bezala, enpresaren ezaugarriak aztertuko ditut, hau da, kokapena, indarguneak, lehiakideak, kapital soziala, taldeko matrizea... Ondoren Euskal Autonomia Erkidegoan, Gipuzkoan eta Donostiako Hotel sektoreari buruz hitz egingo dut, Espainia eta EAeko sektorearen konparaketarekin bukatuz. Geroago, enpresaren urteko kontuak analizatuko ditut dagozkion taula eta grafikoak burutuz bere lehiakide batzuekin konparatuz. Kasu honetan, konparaketa egiteko aukeratu ditudan Hotelak Hotel Londres y de Inglaterra (4* Donostia), Hotel Village Park (4* Donostia) eta Hotel Vitoria-Gasteiz (4* Gasteiz). Hiru Hotelak dira 4 izarrekoak eta negozio zifretan oinarritu naiz aukeraketa egiterako orduan, antzeko fakturazioko Hotelak izatea saiatu naiz, ondorengo taulan ikusi dezakegun bezala. Nire lehen asmoa beste Hotel ezagun batzuekin lan egitea zen, hau da, Hotel Astoria⁷ edo Barceló Costa Vasca nahiago nituen, baina ezin izan ditut beraien urteko kontuak lortu (Hotel horien taldekoen matrizearena soilik eskuragarri).

Hotel Amararen gerentearekin elkarrizketa edukita, analisia eta aurreikuspenak egiteko asko lagundu dit. Orain arteko egoera aztertuz eta Hotel Amararen gerenteak emandako informazioarekin etorkizuneko enpresaren urteko kontuen aurreikuspena kalkulatuko dut.

	Hotel Amara	Hotel Vitoria-Gasteiz	Hotel Village-Park	Hotel Londres
N.Z.Z.G.	6.265.378	6.982.713	5.998.593	8.945.813
Aktibo Kopuru	16.608.134	9.675.059	14.461.002	7.136.561
Langile Kopurua	76	24	70	84

AUKERATZEAREN ARRAZOIA

Donostian sartzeko orduan ikusten den lehenetariko eraikuntza delako, handia, aipagarria eta dotorea. Horren ondorioz, hiria lagatzerakoan ikusten den azken eraikuntza nagusia da, neguan koloreekin argizatua, izar asko dituen, enblematikoa. Erraz ahazten ez den horietakoa!

Txikitatik Donostiara joan etorriko bidai asko egin ditut, hasieran gurasoekin eta geroago lagunekin, egun-pasa edo kirolean aritzera. Donostian zegoen Hotel eta eraikuntza garrantzitsuenetarikoa zela uste nuen eta 5 izar zituelakoan nengoen (txikitan automobiletik eraikuntza begiratzean, 4 izar zenbatu beharrean 5 zenbatzen nituen, behar bada kotxearen abiaduragatik). Hori dela eta beti izan dut berarekiko jakin nahia.

XEDEA

Bereziki Aukeratu dudan Hotelaren egoera analizatzea da helburua. Horretarako, Euskal Hotelen sektorearen egoera aztertuko dugu, Gipuzkoa eta Donostian zentratuta. Horrez gain, Espainiako sektorearekin konparaketa bat egingo dut, sektore osoko ideia bat egiteko.

Urte askotan entzun dugun krisia, Euskal enpresetan eragina izan duen ikustea nahi dut. Hotel Amara Plazaren kasuan, hurrengo urteetarako espero daitekeen urteko kontuak kalkulatu nahi ditut. Balantze eta galdu irabaziko kontu garrantzitsuen aldaketekin, Balantzeak eta galdu irabaziak jasango dituen aldaketak aurreikusi nahi ditut.

AURKEZPENA

Hotel Amara Plaza Donostian kokatuta dagoen lau izarreko Hotela da. Plaza Pío XII, 7 kalean du bere egoitza, hiriaren sargunean, eta Peña Ganchegui arkitekto ospetsuak diseinatutako eraikuntza da.

Hotel Amara Plaza, Sozietate Anonimoan bilakatu zen 1989ko Martxoaren 26an, hemendik aurrera "sozietatea" deituko duguna. Sozietateak Hotelaren sektorean lan egiten du, baita ere kafetegi eta jatetxe zerbitzuetan ere.

Bezzeroari erosotasuna eta arreta transmititzea, zerbitzu eta produktuaren kalitatea eskainiz da Hotel Amara Plazaren xedea.

Hotelaren indargunea bere kokalekua da. Bereziki, hiriko sarreran, autobus estazio eta tren geltoki alboan kokatuta baitago. Ezinezkoa da Donostiara sartzeko eta Hotelaren eraikuntza ez ikustea.

Hotelak artearen aldeko apustua egin du azkenengo urteetan. Hau da, beste lehiakide batzuegandik bereizteko, Hotelaren harreran non eraikuntzan zehar artista ospetsu askoren pinturak eta artelanak aurkeztu ditu.

Hotelak 162 logela ditu: 16 indibidualak, 142 bikoitzak (ohe bat edo birekin), 3 Junior Suite eta Suite bakarra. Hotelaren solairu bakoitza zertarako bideratuta dagoen aipatuko dugu:

- Hotelak lurrazpian kokatuta dauden 3 solairu ditu:
 - -3: Parkinga eta biltegia
 - -2: Aldagelak, arropa garbiketa, upeltegia, mantendua eta Parkinga.
 - -1: Areto gelak eta sukalde nagusia.
- Beheko solairua: Hall, harrera-lekua, Piano taberna, Jatetxea/Kafetegi eta sukalde kafetegi.
- Tarteko solairua: Gosariko Buffeta, kongresu gela, bulegoak eta bestelakoak.
- Solairu teknikoak: Beharrezko makineria
- 1-9 Solairuak: Logelak
- "Azotea": Bestelako makineria.

Hotela bi bezeri motari bideratuta dago. Alde batetik enpresa bezeria, astean zehar lan egunetako bezeria eta bestetik, aisiarako bezeria, aste bukaeretan eta jaiegunetan edo oporraldian etortzen direnak.


Hotel Amara Plazaren lehiakide zuzenak Donostian kokatzen diren Hotelak, pentsioak eta bestelako alojamentuak izango dira. Lehen aipatu dugunez, bi bezeri mota daude. Alde batetik enpresa bezeroak egongo dira, zeinek Hotel tipo hauek eskaintzen dituzten zerbitzu eta prestazioak eskatzen dituzten. Kasu honetan, lehiakideak kategoria berdineko edo handiagoko Hotelak izango dira, hau da, 4 edo 5 izarrekoak. Esan beharra dago Donostia hirian 4 izarreko 11 Hotel daudela, eta 5 izarreko bakarra.

Bestetik, oporraldi edo aisiarako bezeria bereiztuko da. Konpetentzia gero eta handiagoa da ez dutelako soilik prestazioak bilatzen baizik eta kokalekua, prezio erakargarriak etab. baita ere. Adibide bat izateko, alde zaharrean kokatutako pentsioa batean ostatzea, 4 izarreko Hotel batean ostatzea baino garestiago izan daiteke.


Hoteleko gerenteak dioenez, Hotel Amara Plazak 70.000 bezero jasaten ditu urtero batz besteko. "Room night" ak 40.000 eta 45.000 artean, soilik gau bat pasatzera etortzen diren bezeroak. Batz besteko estantzia 1,7 eta 2 gauen artean egongo da.

Hotel Amara Plaza 5.409.000€ko kapitala duen sozietatea da, geroago hobeto azalduko duguna.


Sozietateak ez ditu kontu bateratuak prestatzen, legez behartuta ez dagoelako. Hotel Amara Plaza S.A. Grupo Urvasco barruan sartuta dago, Numerus Clausus S.L. Matrizea izanik. Matrizearen egoitza soziala Bizkaian dago, baina egoitza fiskala Araban, beraz, taldeko kontu bateratuak Numerus Clausus S.L. Arabako merkatal erregistroan entregatzen ditu. Taldea osatzen duten beste enpresak hauek izango dira:



Esan dugunez, Sozietateak 5.409.000€ko kapital soziala du. 900.000 akziok osatzen dute kapitala, 6,01€ko balio nominala dutenak. Akzioak guztiz despoltsatuta daude eta eskubide politiko eta ekonomiko berberak dituzte. Akzio hauek "Grupo Urvasco" taldeko bi enpresen artean banatuta daude zehazki.



Bestalde, sozietateak beste enpresa batzuen partaidetza du. Enpresa horietatik inork ez du burtsan kotizatzen eta azkenengo bi urteetan Hotel Amarak ez du dibidendurik jaso.



Hotelaren arrakasta bere kokalekuan eta eskaintako kalitatezko zerbitzuetan oinarritzen da. Autobus estazio ondoan, tren estaziotik gertu eta Donostia hiriaren sarreran. Baita ere, Hotelaren merkatal departamentuak eta Silken kateak (Silken kate barruan dago) egindako kudeaketa komertzial egokiagatik, bere gerentearen esanetan. Ezin dugu ahaztu Donostia hiriak sortzen duen erakargarritasuna eta probintziako gune industrialak gertu daudela.

Hotelak bezero kopuru handiena ostutzen duen epealdia Uztaila-Abuztua izaten da. Bereziki garai honetarako espero den klima onarengatik, opor garaiarengatik eta beste gertakizun ospetsu batzuk Donostiako hiriak jasotzen dituenak, besteak beste: Donosti Cup, Aste Nagusia, Jazzaldia, Zinemaldia eta gertuko hirietako gertakizunak, San Ferminak bezalakoak.

Hotelaren gerentearen esanetan, helburua etorkizunerako bezero kantitatea handitzea da, beti ere orain arte eskaintako kalitatea mantenduz eta kosteak estutuz.


SEKTOREAREN EGOERA

Gipuzkoako Hotelen sektorearen egoera, bestelako sektoreen antzera, ez dago bere garai hoberenean. Egoera hau faktore desberdinen arabera osatuta dago, besteak-beste:


- Azkenaldian igaro eta oraindik igarotzen gauden krisia sektore guztiak astintzen ditu, nahiz eta batzuk besteak baino gehiago. Puntu honen barruan, Hotel Amara Plazaren gerenteak dionez, bi ezaugarri nagusi bereizten dira. Alde batetik familia ekonomia egongo da, non gero eta gutxiago bidaiatzen duen edo aisiarako diru gutxiago bideratzen duen. Bestetik, enpresak egongo dira, non “room night”-ak gutxiagotu dira eta alojamenduaren prezioa birnegoziaketaren ostean beherantz egin duen.
- Alojamen duaren sektorean dagoen konpetentzia. Nahiz eta Donostian eskaintzen diren logela kopurua beste hiri turistiko batzuen baino txikiagoa den, azkenengo urteetan igoera nabarmena jasan dute, ez soilik Hotelei dagokionez, pentsioak, aterpeak etab. dagokionez ere.
- Gaur egun ia hiri ertain eta handi guztiak badute batzarrak antolatzen azpiegitura egokia, eta hau aldi berean, konpetentzia sortzen du kongresuak antolatzen orduan. Honek, balio erantsia eskaintzera behartzen zaitu batzar hauek antolatzen.

Zerbitzuen kalitateari dagokionez, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabaren artean 272 establezimenduk dute turismo-kalitatearen Q bereizgarri famatua (Espainiako turismo-sektorean kalitatea adierazten duen marka). Bestalde, Eusko Jaurlaritzako turismo sailak irisgarritasun programa bat garatu du non E.A.E.ko 140 turismo establezimendu merezi izan dute irisgarritasun-zigilua. Programa honek, establezimenduei zerbitzuak bezeroei nola bideratu erakusten die (euskadi.net).

Euskal Autonomia Erkidegoko Hotelek ostaturako jende kopurua murriztua ikusi da urtez-urte. 2012. Urtean 2.420.107 izan zen Euskal Hoteletan ostatu zen jende kopurua, 2013an berriz 2.368.080 izan da ostaturako jende kopurua. Jende kopuru hori, estatu berekoek eta atzeritarrez osatuta dago. Azkenengo urteetan Euskal Autonomia Erkidegoko Hotelek ostaturako jendearen %38a atzeritarrak ziren, Frantzia (atzeritar osoen %25a), Erresuma Batua eta Alemaniatik gehienbat etorrita. Bestalde, beste %62a EAE, Madril eta Kataluniako pertsonen artean osatzen dute ranking-a (eustat).



Iturria: Eustat



Iturria: Eustat

Grafiko honetan, Euskal Autonomia Erkidegoak jasan dituen urteko bidaiari kopurua aztertuko dugu. Espainiako grafikoa ere jarri dugu, Espainia eta E.A.E.k dituzten berdintasunak edo desberdintasunak ikusteko. 2000.urteetik hasita 2013.urtera arte gertatutako bilakaera aztertuko dugu.

Euskadi gero eta bidaiari gehiago jasotzen hasi zen 90eko hamarkadatik aurrera, “Euskadi, ven y cuentalo” lemarekin. 2000.urtean 1.500.000 bidaiari inguru ostatu ziren Euskal Autonomia Erkidegoko Hotel guztietan. 2001.urtean beherakada bat nabaritzen da. Angel Gagoren ustetan (bere garaian Euskal Autonomia erkidegoko ostalaritza erakundeen bozeramailea), politika eta terrorismoan izandako arazoengatik izan zen. Bidaiari kopurua %10 batean murriztu zen, baina urte hartatik aurrera igoera nabarmena jasan zen 2007.urtera arte. Euskal Herria kuriositatea sortarazten hasi zen kanpotarren artean, batez ere kultura, erliebea eta gastronomiarengatik (El diario vasco).

2007.urtea inflexio puntua izan zen. Krisia beste sektoreetan bezala, eragin nabaria izan zuen Euskal Hoteletan. Hurrengo bi urteetan jaitsiera nabaritu zen, nahiz eta oraindik 2005ean baino bidaiari gehiago jaso. 2010ean badirudi egoera hobetu zela, 2011.urtean ia 2.500.000 bidaiari jasan arte. 2013.urtean joera hori gelditu egin dela dirudi, baina hurrengo urteetan hazkuntza nabarituko dela susmoa dago.

Espainiako Hotelen sektorearen grafikoa ikusita, E.A.E.n gertatu den bilakaera berdina bereiz dezakegu.


E.A.E.n 2001ean beherakada txiki bat nabarmendu zen, Espainian bestalde ez beherakada ez gorakadarik bereiztu zen, 2000.urteko zifra berdina mantendu zuen. Hortik aurrera, 2007.urterarte gorakada konstante bat egon zen, boom ekonomiakori deritzona. Baina 2007-2008 urteetan krisi ekonomiako agertu zen eta sektore guztiak bezala E.A.E.ko eta Espainiako Hoteletan ostutzen zen jende kopuruaren beherakada nabaria eman zen.

Berriro ere hazkuntza prozesuan murgildu zen 2010.urtean. Hazkuntza hori bi urtekoa besterik izan zen, 2009-2011ra. Urte honetatik aurrera, 2012.urtean zifrak antzera mantendu ziren baina 2013an beherakada txiki bat nabaritu zen, etorkizuna kolokan jarritz.

Argi dago, bai Espainia eta E.A.E.ren egoera berdina izan dela, biek berdin afektatuta ikusi baitira krisiarengatik.

Hori dela eta, 2010etik 2013ra, Euskal Autonomia Erkidegoak 9 milioi € bideratu zituen Euskal Herriko turismoa konpetitiboagoa bihurtzeko asmoz. Laguntza horretatik, 1,2 milioi € enpresa turistikoztat izan da teknologia berria ezartzeko, hala nola Wifi-a Hoteletan etab (hosteltur.com).

Euskal Autonomia Erkidegoa alde batera utziz, Gipuzkoan zentratuko gara. 2012.urtean 865.609 pertsona ostatu zuten Gipuzkoako Hotelak, 881.547 2013an ordea. Gipuzkoan Hotelek ostatatutako jende kopuruaren igoera txiki bat nabarmentzen da. Bereziki Hotelek ostatatutako guztien artean %40a atzerrikoak dira, lehen aipatu dugun nazioetatik etorritako ordenean baita ere. Bisitarien batz besteko egonaldia 1,88 egunekoa da Euskal Autonomia Erkidegoan. Gipuzkoakoaren batz bestekoa 2,01 egunekoa da berriz, egonaldi luzeenak jasaten duen lurraldea hain zuzen ere.



Iturria: Eustat

Grafikoetan ikusi dezakegun bezala, bai Espainia, E.A.E eta Gipuzkoan egoera antzekoa ematen da azkeneko urteetan.

Donostiak duen turismoa, kultura eta gastronomian oinarrituko da batez ere. Horrela, Rafael Moneok diseinatutako Kursaal zentroa eta Eduardo Chillida eskultoreak egindako Haizea Orraziaren gisako obra abangoardistak izango dira funtsezkoak hiriko turismoan. Donostia hiria 2016.urteko Europako Kultura Hiriburua izendatu dute orain dela gutxi, dudarik gabe Donostiako turismoari bultzakada bat emango diona (El país). Bestalde gastronomiaren arloan, Donostia da metro karratuko Mitxelin izar gehien duen bigarren hiria mundu osoan. Ezinezkoa izango zena mundu mailan ezagunak diren Pedro Subijana, Juan Mari Arzak eta Martin Berasategui sukaldariak eduki gabe. Donostiak jasandako bidaiariei buruz, 484.818 pertsona ostatu ziren 2012.urtean eta 494.951 2013.urtean.

Egia esan, Euskal edo Espainia iparraldeko turismoa Espainia atzerrian duen ospearen desberdina da. Euskal herriko turismoa Espainiako beste tokietakoa baino garestiagoa da. Kostan kokatuta dago baina ez da Mediterraneo itsasokoa, klima hain epela ez duena. Berde gehiago dagoen erliebea da eta kultura eta gastronomia aldetik oso desberdina dena. Ezaugarri guzti hauek bizi kalitate maila igotzen du, Espainiako bizi kalitate altuenetarikoa duten hiriburuak edukita, eta honek aldi berean garestiago bihurtzen du Euskal herria (El mundo). Horren ondorioz, Euskal turismoa erdi maila altuko klasera bideratu nahi da, batez ere atzerritarrak erakarriz, beraiek egiten duten gastua handiagoa baita (El país).

ENPRESAREN ANALISIA

Ondare-Analisia. Inbertsio-Egituraren Analisia.

Balantzea. AKTIBOA

Balantzearen aktiboan enpresak dituen eskubideak eta ondasunak agertzen dira, egun batean eskubide horren truke dirua lortuko duelarik. Aktibo ez korrontea eta korrontea bereizten dira, epe luzea eta laburra. Bilakaera hobeto aztertzeko, balio absolutua, balio erlatiboa (balantzeko kontu bakoitzak zenbat pisu duen adierazten duena %tan) eta balio horizontalarekin jolastuko dugu (urte batetik bestera zenbateko aldakuntza jasan duen).

Hotel Amara Plazaren aktiboa aztertzekoan, 2010etik inbertsio garrantzitsurik egin ez dela ikusi dezakegu. Bestalde, aktiboak izan duen murrizketa amortizazio eta narriadurarengatik izan da. Aktiboa enpresaren tamaina adierazten du, eta horregatik enpresa gero eta txikiagoa dela ikusten dugu. 2012ko Aktibo totala 16.608.134€koa da, 2011.urtean baino ia 1.000.000€ gutxiago. 2010.urteko aktibo totala 19.385.472€koa zen, 2010etik 2012ra enpresaren tamaina %15ean murriztu dela ikusiz.

Enpresak garatzen dituen inbertsio guztietatik, gehienak epe luzean osatzen dira, Ibilgetu materialean eta taldeko enpresen ondare tresnetan inbertsioak batez ere.

Esan dugunez, murrizketa izan du Hotel Amara Plazak azkenengo urte hauetan. Aktibo ez korronteko kontu guztiak izan dute murrizketa konstante bat, amortizazioak eraginda. 2012.urteko aplikazio informatikoen amortizazioa 8.615€koa izan zen. 2011.urtean 466€ balio zuten aplikazio informatikoak erosi ziren, eta amortizazioa 5.112€koa izan zen, horrek azaltzen du aplikazio informatikoak izandako murrizketa. Hala ere, balio erlatiboari dagokionez ez dira esanguratsuak.

Logikoa denez, inbertsio gehiena edo zati handi bat Ibilgetuan gauzatuko da, Hotelaren aktibitatea bere Ibilgetuarekin zuzenean erlazionatuta dagoelako. Horregatik 2010.urtean 8.449.475€ Inbertitzen ziren, inbertitutako 100€ bakoitzeko 44€ inbertitzen ziren ibilgetu materialean. 2011.urtean 8.101.943€ inbertitu ziren, inbertsio osoaren %46a izanik. Azkenik, 2012.urtean egindako inbertsioa murriztu egin da, guztira 7.649.353€koa izanik baina balio erlatiboa mantenduz, %46a. 2012.urtean jasandako murrizketa amortizaziori dagokio. 499.386€ko amortizazio jasan du, soilik 46.796€ko hobekuntzak jasanik. Horren ondorioz, Ibilgetu Materialak %6-murrizketa jasan du 2011tik 2012ra. 2011.urteko %4ko murrizketa azaltzeko, 151.868€ko hobekuntzak, 497.781€ko amortizazioa eta 1.619€ko balio galera ipatu behar dira.

Hala ere, Hotel Amara plazak guztiz amortizatuta baina oraindik funtzionamenduan duen ibilgetu materiala du, 2.497.113€koa 2012.urtean hain zuzen ere.

Epe luzeko inbertsioak taldeko enpresetan beste 8.400.000€ ziren 2010.urtean, aktibo totalaren %43a izanik. 2011.urtean egindako inbertsioa txikiagoa izan zen, baina hala ere 7.800.000€koa izan zen, inbertsio osoaren %44a Azkenengo urtean inbertsioa ere murriztu da, 100.000€tan, guztira 7.700.000€ inbertituta, inbertsio osoaren %46a.

Datu hauekin azkenengo urteetan Ibilgetu materiala nahiz taldeko enpresetan epe luzeko inbertsioak garrantzia erlatiboa irabazi dutela ikusi dezakegu, nahiz eta balio absolutuetan inbertsio txikiagoa garatu. Aktibo korrontek jasandako murrizketa ikusita garrantzia erlatiboa irabazi duela ulertu dezakegu.

Epe luzeko finantza inbertsioak eta zerga geroratuak ez dute aldaketarik jasan, 1.231€ eta 324.285€ hurrenez-hurren baina balio erlatibo oso txikia dutenez ez diogu garrantzirik emango.

Balio absolutuetan bai aktibo ez korrontek bai aktiboa korrontek antzerako murrizketa jasan dute, baina murrizketa hori, aktibo ez korrontean %3,5eko eragina izan du eta

bestalde %30ekoa aktibo korrontean 2012.urtean. Hori gutxi balitz, 2011n epe luzeko aktiboek %5eko murrizketa izan zuten baina epe laburrekoek %40koa. Horrek azaltzen du aktibo ez korronteak jasandako balio erlatiboaren hazkuntza.

Aktibo korrontea aztertzerakoan, murrizketa konstante bat jasan duela aipatu dugu. 2010.urtean 2.200.000€ inbertitu ziren epe laburreko aktiboetan. 2011an ia 900.000€ gutxiago inbertitu ziren, 1.300.000€ inbertituz eta 2012an 913.511€ inbertitu ziren. %40an eta %30ean murriztuta ikusi da aktibo korrontea hurrenez-hurren. Balio erlatiboa ere txikituta ikusi da. 2010ean inbertitutako 100€ bakoitzeko 11€ aktibo korrontean inbertitzen ziren. 2011.urtean balio erlatiboa galdu zuen eta orain inbertsio osoaren %8 bereganatzen zuen. Azkenik 2012.urtean ere balio erlatiboa galdu du, ia %6ko garrantziarekin.

Izakinak 118.924€ko inbertsioa eskatzen dute 2012.urtean, Hotel Amara Plazak kudeatzen dituen kontuekin konparatuz oso inbertsio txikia. Enpresa komertzial bat ez denez, bere aktibitatea ez du izakinekin zerikusi handirik, zerbitzuak eskaintzen baititu. Honek izakinen zenbateko txikia azaltzen du. Balio erlatibo oso txikia duenez, murrizketa edo hazkuntza txiki batekin balio horizontalean eragin handia izango du. 2010.urtean 200.000€ko inbertsioa egin zen, inbertsio osoaren %1 bereganatuz. 2011.urtean izakinetan egindako inbertsioa %40ean murriztu zen, 140.000€ inbertituta (gutxi gora behera) eta 2012an lehen aipatu dugun zifrarekin %15a murriztu zen baita ere.

Zordun komertzialen kontua, 2012.urtean soilik bezeroek osatzen zuten, 530.000€rekin. 2010 eta 2011.urteetan bezeroek eta taldeko entitateko bezeroak osatzen zuten. 2010.urtean zordun komertzialen kontua ia 800.000€koa bazen, bezeroak 630.000€ eta taldeko entitateak 140.000€ bereganatzen zuten, behar finantzario osoaren %3a eta %1a bereganatuz hurrenez hurren. 2011.urtean zordun komertzialen kontua hazkuntza txiki bat jasan zuen ia 820.000€ko behar finantzarioarekin. Hala ere bezeroek eta taldeko enpresek inbertsio osoaren zati berdina bereganatzen jarraitzen zuten. Bukatzeko, badakigu 2012.urtean murrizketa esanguratsua izan zuela, bereziki %35ekoa, inbertitutako 100€ bakoitzeko zordun komertzialek 3€ bereganatuz.

Periodifikatzeak Hotel Amarak duen kontu txikiena da eta ia garrantzirik ez duena, 2011n erdiraino murriztu zena eta 2012an konstante mantenduz (garrantzia gabea).

Bukatzeko erabilgarria aztertzea falta zaigu. Hotel Amara Plazak 1.173.061€ inbertitu zituen bere diruzaintzan 2010.urtean, 353.057€ 2011.urtean eta 250.827€ azkeneko urtean. 2011an %70eko murrizketa jasan zuen. 2012.uretan ia %30eko desinbertsioa jasan du diruzaintzak. Garrantzia erlatiboa galdu duela argi ikusi dezakegu, inbertitzen diren 100€ bakoitzeko soilik 1,5€ inbertitzen baita eskudiruan non 2010.urtean 6€ inbertitzen ziren. Geroago, Diru fluxuen egoeran ikusiko ditugu diruzaintzaren murrizketaren arrazoiak.

Arrazoi guzti hauengatik, 2010.urtetik aurrera Hotel Amara Plazaren tamaina murriztuta ikusi da, 19.385.472€tik 16.608.134€ra.

<u>AKTIBOA</u>	2012 (2011)			2011			2010		
	B. Absolutua	B. Erlatiboa	B. Horiz	B. Absolutua	B. Erlatiboa	B. Horiz	B. Absolutua	B. Erlatiboa	B. Horiz
AKTIBO EZ-KORRONTEA	15.694.623,00	94,50	96,52	16.260.623,00	92,47	94,63	17.184.029,00	88,64	100,00
Ib. Ukiezina	15.389,00	0,09	64,11	24.004,00	0,14	83,78	28.650,00	0,15	100,00
Aplikazio informatikoak	15.389,00	0,09	64,11	24.004,00	0,14	83,78	28.650,00	0,15	100,00
Ib. Materiala	7.649.353,00	46,06	94,41	8.101.943,00	46,07	95,89	8.449.475,00	43,59	100,00
Lurrak eta eraikuntzak	6.278.949,00	37,81	98,27	6.389.215,00	36,33	98,29	6.500.602,00	33,53	100,00
Instalazio teknikoak eta bestelako I.M.	1.370.404,00	8,25	80,01	1.712.728,00	9,74	87,88	1.948.873,00	10,05	100,00
Epe luzeko inbertsioak taldeko entitate	7.704.365,00	46,39	98,66	7.809.160,00	44,41	93,18	8.380.388,00	43,23	100,00
Ondare Tresnak	7.704.365,00	46,39	98,66	7.809.160,00	44,41	93,18	8.380.388,00	43,23	100,00
Epe luzeko finantza inbertsioak	1.231,00	0,01	100,00	1.231,00	0,01	100,00	1.231,00	0,01	100,00
Ondare Tresnak	1.231,00	0,01	100,00	1.231,00	0,01	100,00	1.231,00	0,01	100,00
Zerga geroratuen aktiboak	324.285,00	1,95	100,00	324.285,00	1,84	100,00	324.285,00	1,67	100,00
AKTIBO KORRONTEA	913.511,00	5,50	69,00	1.323.908,00	7,53	60,14	2.201.443,00	11,36	100,00
Izakinak	118.924,00	0,72	85,01	139.888,00	0,80	68,97	202.811,00	1,05	100,00
Zordun komertzialak eta kobratzeak	530.524,00	3,19	64,87	817.818,00	4,65	102,63	796.897,00	4,11	100,00
Bezeroak salmentengatik eta zerbitzu	530.524,00	3,19	78,98	671.736,00	3,82	106,59	630.195,00	3,25	100,00
Bezeroak, taldeko entitateak eta elkar	0,00	0,00	0,00	145.393,00	0,83	103,91	139.921,00	0,72	100,00
Administrazioekiko bestelako kreditua	0,00	0,00	0,00	689,00	0,00	2,57	26.781,00	0,14	100,00
Epe motzeko periodifikatzeak	13.236,00	0,08	100,69	13.145,00	0,07	45,84	28.674,00	0,15	100,00
Eskudirua eta bestelako aktibo likidoak	250.827,00	1,51	71,04	353.057,00	2,01	30,10	1.173.061,00	6,05	100,00
Diruzaintza	250.827,00	1,51	71,04	353.057,00	2,01	30,10	1.173.061,00	6,05	100,00
AKTIBOA GUZTIRA	16.608.134,00	100	94,45	17.584.531,00	100	90,71	19.385.472,00	100	100

<u>O.G. ETA PASIBOA</u>	2012 (2011)			2011			2010		
	B. Absolutua	B. Erlatiboa	B. Horiz	B. Absolutua	B. Erlatiboa	B. Horiz	B. Absolutua	B. Erlatiboa	B. Horiz
ONDARE GARBIA	9.086.416,00	54,71	112,99	8.042.081,00	45,73	101,34	7.935.911,00	40,94	100,00
Fondo Propioak	9.065.468,00	54,58	112,73	8.042.081,00	45,73	101,34	7.935.911,00	40,94	100,00
Kapital Eskrituratuak	5.409.000,00	32,57	100,00	5.409.000,00	30,76	100,00	5.409.000,00	27,90	100,00
Erreserbak	7.055.024,00	42,48	100,15	7.044.407,00	40,06	100,00	7.044.407,00	36,34	100,00
Legal eta estatutarioak	1.646.756,00	9,92	100,65	1.636.139,00	9,30		1.636.139,00	8,44	100,00
Bestelako erreserbak	5.408.268,00	32,56	100,00	5.408.268,00	30,76		5.408.268,00	27,90	100,00
Aurreko ekitaldiko emaitza neg.	-4.421.943,00	-26,63	97,88	-4.517.495,00	-25,69	107,73	-4.193.345,00	-21,63	100,00
Ekitaldiko Emaitza	1.023.387,00	6,16	963,92	106.169,00	0,60	232,75	-324.151,00	-1,67	100,00
Diru-Laguntzak, Dohaintzak, Leg.	20.948,00	0,13	100,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
PASIBO EZ-KORRONTEA	6.347.122,00	38,22	76,28	8.320.983,00	47,56	78,43	10.609.849,00	54,95	100,00
Epe luzeko Hornidurak	42.044,00	0,25	100,00	42.044,00	0,24	100,00	42.044,00	0,22	100,00
Pertsonalaren epe luzeko lansarien obligazioak	42.044,00	0,25	0,00	42.044,00	0,24	100,00	42.044,00	0,22	100,00
Epe luzeko zorrak taldeko entitateetara	6.289.621,00	37,87	78,75	7.987.205,00	45,42	77,73	10.276.071,00	53,01	100,00
Zerga Geroratuetatikko pasiboak	15.457,00	0,09	5,30	291.734,00	1,66	100,00	291.734,00	1,50	100,00
PASIBO KORRONTEA	1.174.596,00	7,07	96,16	1.221.467,00	5,38	145,47	839.673,00	3,37	100,00
Epe motzeko zorrak taldeko entitateetara	0,00	0,00	0,00	53.127,00	0,30	99,99	53.131,00	0,27	100,00
Hartzk. Komertz. Eta OBK	1.174.596,00	7,07	100,54	1.168.340,00	5,08	148,54	786.542,00	3,09	100,00
Hornitzaileak	624.293,00	3,76	105,19	593.503,00	3,38	130,30	455.476,00	2,35	100,00
Hornitzaileak, taldeko entitateekin	74.311,00	0,45	35,66	208.410,00	1,19	222,80	93.541,00	0,48	100,00
Hainbat hartzekodun	60.661,00	0,37	66,97	90.576,00	0,52	179,71	50.402,00	0,26	100,00
Pertsonala (ordaintzeko dauden lansariak)	95.904,00	0,58		0,00	0,00		0,00	0,00	100,00
Administrazioekiko bestelako zorrak	216.860,00	1,31	264,31	82.047,00	0,47	110,51	74.244,00	0,38	100,00
Bezeroen aurrerakinak	102.567,00	0,62	52,92	193.804,00	1,10	171,69	112.879,00	0,58	100,00
O.G. ETA PASIBOA	16.608.134,00	100,00	94,45	17.584.531,00	100,00	90,71	19.385.433,00	100,00	100,00

Balantzea. ONDARE GARBIA eta PASIBOA

Ondare Garbia eta pasiboa analizatuko dugu orain. Ondare Garbia, pasibo ez korrontea eta pasibo korrontea desberdinduko ditugu. Hemen ere balio absolutuak, erlatiboak eta horizontalak erabiliko ditugu.

Fondo Propioei dagokionez hazkuntza nabaritu da, batez ere azkenengo urtean. 2010.urtean baliabide Propioak 7.935.911€koak ziren, 2011an 8.042.081€koak eta 2012an 9.086.416€koak izan dira. 2011an %1eko hazkuntza nabaritu zen, 2012an bestalde %13ko hazkuntza nabaritu da. Balio erlatiboan ere garrantzia handituz joan da, finantzatutako 100€ bakoitzeko 41€ finantzaketa p^roioetik zetozen 2010.urtean, 46€ izan ziren 2011an eta 55€ azkenengo urtean.

Kapital Eskrituratua 3 urteetan zehar konstante mantendu da, 5.409.000€rekin. Balio erlatiboa handituta ikusi da, Hotel Amara Plazaren aktiboa murriztuta ikusi denez, normala da kontu bat konstante mantenduz garrantzia erlatiboa irabaztea. Enpresak jasandako 100€ko finantzaketatik, bai epe laburrean edo luzean 32,5€ bazkideen ekarpenetik datoz 2012.urtean, ia 2010.urtean baino 5€ gehiago. (kapital eskrituratua ez da aldatu, baina bere garrantzia erlatiboa bai, gero eta handiago da).

Erreserbak dira Baliabide Propioetatik zifra handiena duen kontua. 7.055.024€ osatzen dute erreserbak 2012.urtean, %42,5 balio erlatiboarekin. Erreserben artean, legal eta estatutarioak eta bestelako erreserbak bereiztu behar dira. 2010 eta 2011.urteetan izandako erreserbak 7.044.407€koak izan ziren, aldatuak izan gabe. Legal eta estatutarioak 1.636.139€ zituzten, eta bestelako erreserbak 5.408.268€ osatzen zuten. Geroago ikusiko dugun bezala, 2010eko ekitaldiko emaitza negatiboa izan zen, eta horren ondorioz erreserbetara eramandako zatia nulua izan zen. Hala ere, 2012.urtean izandako gehikuntza (2011ko ekitaldiko emaitzaren %10a) oso txikia izan da eta balio horizontalean ez da aldatu nabari. Balio erlatiboan, erreserba kontua garrantzia irabazten joan da lehen aipatu dugun bezala, Hotelaren tamaina txikiagotu delako.

Aurreko ekitaldiko emaitza negatibo kontua 4.193.345€koa izan zen 2010.urtean. 2011.urtean 4.517.495€koa (2010eko ekitaldiko emaitza negatiboa izan zen) eta 2012.urtekoa 4.421.943€koa da. Badakigunez, 2012an aurreko ekitaldiko emaitza negatiboen kontua murriztu egin zen 2011.urtean ekitaldiko emaitza positiboa izan zelako, 106.169€koa. Emaitza honen %10a Erreserba legetara bidali zen eta gainontzekoa aurreko ekitaldiko emaitza negatibora bidali zen. Horregatik AEEN kontua murrizketa txiki bat jasango du, %2koa. Bestalde, 2011.urtean AEEN kontuan hazkuntza nabaritzen da, 2010eko ekitaldiko emaitza negatiboaren ondorioz (-324.151). Egia esan, 2010.urtea ez zen emaitza negatiboa izan zuen urte bakarra, jadanik aurreko ekitaldiko emaitza negatibo kontua ikus dezakegulako. Beraz, 2010eko ekitaldiko emaitzaren (negatiboa) ondorioz 2011.urtean Aurreko ekitaldiko emaitza negatiboen kontua handitu egin zen, bereziki %8an (hazkuntza kaltegarria).

2012.urteko ekitaldiko emaitza hazkuntza nabaria izan du. 1.023.387€ko emaitza, aurreko urtekoa baino %850 handiagoa izanik. Honen arrazoia 2011.urteko ekitaldiko emaitza oso txikia izan zela da eta politika komertzial egokiak hartu izana (krisi egoera aurreko urtean ekitaldiko emaitzaren %5a soilik). Finantzaketaren kasuan ere garrantzia erlatiboa irabazi du; finantzatutako 100€bakoitzeko 6€ autofinantzaketarenak baitira. Nahiz eta sozietatearen erreserben kontua handia izan, erreserba legalak oraindik ez dute kapital sozialaren %20 eta beraz, legeak esaten duen bezala, ekitaldiko emaitzaren %10a gutxienez erreserba legetara bidaliko da, kasu honetan 102.339€ izango dira.

Fondo Propioekin bukatzeko Diru-laguntzak aztertzea falta zaizkigu. Hotel Amara Plazak 2012.urtean soilik izan ditu Diru-laguntzak, bereziki 20.948€koak, garrantzia erlatiborik ez dutenak. Diru laguntza hau, memoriako 12.c atalean jartzen duen bezala,

argi kontsumo minimoa duen teknologia berria ezartzeko eman zen.

Pasibo ez korronteari dagokionez, urtez-urte finantzaketa murriztua ikusi dela esan beharra dago. 2010.urteko epe luzeko zorrak 10.609.888€koak ziren, 8.320.983€koak 2011an eta 6.347.122€koak 2012an. 2.000.000€ko murrizketa jasan du urtero eta %20ko murrizketa aurreko urteekin alderatuz. Enpresaren barnean, epe luzeko pasiboa garrantzia erlatiboa galtzen joan da. 2010.urtean 100€ko finantzaketatik 55€ epe luzeko finantzaketa ziren, 2011an 47€ eta 2012an 38€. Honen arrazoia, Amara Plaza Hotela bere taldeko enpresekin duen zorra ordaintzen joan delako da, bereziki 2.500.000€ 2011an eta 1.800.000€ 2012an. Ia 5.000.000€ murriztu dira 2 ekitalditan. Hobeto ikus ditzakegu Diru fluxuen egoera orrian.

Epe Luzeko hornidurak konstante mantendu dira 42.044€tan, garrantzia erlatiborik izan gabe. Iraganeko erabaki batzuegatik gaur egun dagoen betebeharra da, betebehari hori kitatzeko diruzaintzak murrizketa jasateko aukera handia duena.

Zerga geroratuaren pasiboak murrizketa nabarmena izan du, 15.457€ izatera heldu arte. 2011 eta 2010ean kontua 291.734€koa zen, balio erlatiboaren %1,5arekin. 2012an jasandako murrizketa %95ekoa izan da, garrantzia erlatiborik gabe geratu arte.

Pasibo korrontea aztertzerakoan, garrantzia erlatibo txikia duela esan behar dugu (%5-6). 2010.urteko pasibo korrontea 839.673€koa zen, batez ere Hartzekodun komertzialek osatzen zuten zifra hori. 2011.urtean 1.221.467€ osatzen zuten pasibo korrontea eta 2012an 1.174.596€. Ikus dezakegun bezala, 2011.urtean %46ko hazkuntza izan zuen aktibo korrontea eta azkenengo ekitaldian %4ko murrizketa izan du, nahiko egonkor mantendu da.

Hasteko taldeko entitateekin epe motzeko zorra duela ikusi dezakegu, baina ez du balio erlatibo handirik, ez baita %1era heltzen eta 2012.urtean desagertuta ikusten baita. Ondoren, hartzekodun komertzialetan, batez ere hornitzaileak bereiztu ditzakegu. 2010.urtean 455.476€ko zorra zegoen hornitzaileekin Hornitzaileak, garbiketa materialak, jatetxe eta kafetegirako lehengaiak eta ur eta elektrizitate zerbitzuak eskaintzen dutenak dira. Zor hori handituta ikusi zen 593.503€raino. 2012. 624.293€rainoko hazkuntza gertatu da baita ere. Hornitzaileen kontua gero eta garrantzia gehiago irabazten ari da.

Bestalde, hartzekodun komertzialen barruan beste azpi-kontu batzuk bereiztu dezakegu, baina garrantzia askoz txikiagoa dutenak. Garrantzia txikia dutenen artean garrantzitsuenak taldeko enpresa hornitzaileak eta bezeroen aurrerakinak izango dira, administrazioekiko bestelako zorrak 2012.urtean ahaztu gabe. Aipatutako kontu hauek 100.000 eta 200.000€ artean ibiliko dira aztertutako urteetan, baina ez ditugu gehiago aipatuko garrantzia txikia dutelako.

Bukatzeko, azkenengo urtean pasibo korrontean 50.000€ko murrizketa nabaritu dela aipatu behar dugu. Ia garrantzia erlatiborik galdu ez duenez ez da oso garrantzitsua izango. Enpresekin epe laburreko zorrak likidatu dira eta hornitzaileak %13ko murrizketa jasan dute.

Galdu Irabazia

Hotel Amara Plazaren Galdu Irabazia sakonki aztertu aurretik, azkenengo 3 urteetan emaitzen zeinu aldaketa eman dela aipatu behar dugu; negatibotik positibora.

2010.urteko emaitza negatiboa izan zen, 324.151€ko galerak jasan zituen hain zuzen ere (2008.urtea emaitza negatiboa izan zuen lehen urtea). 2011.urtean aldiz, mozkinak izan zituen, 106.169€koak. 2012.urtean Hotelak mozkinak izan ditu berriro ere, bereziki 1.023.387€, aurreko urtean baino 10 aldiz handiagoak. Bilakaera positiboa izan du Hotelak.

Negozio Zifren zenbateko garbia 6.137.282€ izan ziren 2010.urtean. 6.121.438€koa izan ziren 2011.urtean eta 6.265.378€ azkenengo urtean. Hotel Amara Plazaren fakturazioa konstante mantendu da 3 urteetan zehar (2012.urtean hazkuntza txikia, %2koa).

Argi bereizten da zeintzuk diren enpresak jasaten dituen gastu garrantzitsuenak: pertsonal gastuak eta Ustiapeneko bestelako gastuak. Hala ere, Ibilgetuaren amortizazioa eta Lehengaien kontsumoa (Hornikuntzak) ere gastu aipagarria suposatzen diote Hotelari. Ustiapeneko bestelako sarrerei dagokionez, 2010ean 142.273€koak izan ziren, 2011an 129.055€koak eta 144.568€koak izan dira 2012an, sarreren %2ko proportzioarekin batuz beste. Garrantzia erlatiboa txikia dutenez, nahiko konstante mantendu direla esango dugu.

Pertsonal gastua 2010.urtean 2.124.886€koa izan zen eta balio erlatiboari dagokionez salmenta osoen %35a hartzen zuen. 2011an pertsonal gastua 2.236.125€koa izan zen, salmenta osoen %37a kasu honetan. 2012.urtean, 2.323.974€ko izan da, fakturazio osoaren %37a bereganatuz berriro ere. Urtero-urtero hazkuntza txiki bat nabarmentzen da pertsonal gastuan. Honen arrazoia langile gehiago kontratatu direla da. 2010ean 72 langileko pertsonala zegoen, 2012an 76.

Ustiapeneko bestelako gastuei dagokionez, 1.770.601€koak izan ziren 2010.urtean, 1.792.630€koak izan ziren 2011.urtean eta 1.841.903€koak 2012.urtean. Garrantzia erlatiboa konstante mantendu da 3 urteetan, salmenta osoen % 29a bereganatuz. 2011n, %1eko hazkuntza jasan zuen, eta 2012an ia %3koa.

Ondoren, hain zifra handikoak ez baina esanguratsuak diren beste gastu batzuk bereizten dira, Horniduren soberakinak eta ibilgetu amortizazioak hain zuzen ere. Aztertutako aurreko gastuak bezala, ez dute aldaketa nabaririk jasan 3 urteetan zehar. Ibilgetuaren amortizazioa 508.001€koa izan da eta sarrera osoen %8a bereganatzen du. 2011 eta 2010.urteetan egoera berdina gertatzen zen, ia aldaketarik jasan gabe eta garrantzia erlatibo berdina mantenduz.

Hornikuntzak beherakada izan dute azkenengo urteetan. 822.279€ko lehengai kontsumoa izatetik 2010ean, 790.795€ 2011n eta 760.930€ko kontsumoa izatera pasatu da 2012an. Ikusten dugunez, 30.000€ko murrizketa gertatzen da urtero, %4ko murrizketa urtez-urte. Lehengai gutxiago kontsumitzen dira eta horren ondorioz lehengai gutxiago erosten dira balantzean ikusi dugun bezala. Baina hala ere urtean zehar erosten diren lehengaien kopurua baino gehiago kontsumitzen da. Hornikuntzak %12 inguruko balio erlatiboa dute 3 urteetan zehar.

Ibilgetu narriadura eta bestelako emaitzak begiratzean, garrantzirik ez dutela ohartarazten gara.

Negozio zifren zenbateko garbiari aipatutako gastuak kenduta eta oso esanguratsuak ez diren bestelako sarrerak eta emaitzak gehituta, Ustiapeneko emaitza geratzen da. 2010.urtean 1.063.500€ko ustiapen emaitza izan zuen 2011an 926.473€koa izan zen eta 2012.urtean 978.025€ izan dira. Salmenta osoen %15ko zatia bereganatzen du 2012 - 2011 urteetan eta %17a 2010.urtean. Ikus dezakegun bezala, 2010.urtean zifra altuena

lortu zuen, bereziki ekitaldiko emaitza negatiboa izan zen urtea. 2011an %13ko murrizketa izan zuen eta 2012an %6ko hazkuntza izan du.

Behin ustiapeneko emaitza jakinik, gastu eta sarrera finantzarioak aplikatu behar zaizkio. Hotel Amara Plazak ez ditu sarrera finantzariorik izango aztertutako 3 urteetan, baina bai gastu finantzarioak, eta nabarmenak. Beraz emaitza finantzarioa negatiboa izango da. 2010ean 1.434.500€ko gastu finantzarioak izan zituen. Taldeko enprekin zuen zorrarengatik gastu finantzario oso altuak ordaindu behar izan zituen, bereziki ia 215.000€, baina oraindik ere gastu handiagoa izan zen finantza tresnetan izandako balio galera, 1.200.000€ baino gehiagokoa. Finantza gastuhau, taldeko enpresen ondasunetan dituen partaidetzak jasandako balio galeran oinarritzen da.

Urte hartako salmenta osoen %23a gastu finantzarioetara bidali zen, eta sarrera finantzariorik ez izateko, pastelaren zati handi eta garrantzitsu bat bereganatu zuten gastu finantzarioak.

2011.urteko gastua finantzarioa esanguratsua izaten jarraitzen zuen 820.000€rekin eta negozio zifraren %13a menperatzen zuen oraindik. Nahiz eta zifra altua izan, aurreko urtearekin alderatuz ia %50eko murrizketa jasan zuen. Taldeko enprekin izandako gastu finantzarioak ia 250.000€koak izan ziren eta finantza tresnetan izandako balio galera 570.000€koa izan zen.

2012ko ekitaldian gastu finantzarioak 240.000€koak izan dira. 2012.urtean %70eko murrizketa jasan dute gastu finantzarioak. Urte honetan ere taldeko enprekin gastu finantzarioa eta finantza tresnen balio galera agertu dira, 130.000€ eta 100.000€ baino gehiagorekin hurrenez-hurren. Argi dago 3 urte horien artean gastuak asko murriztu direla, 2010ean zegoen zifra 7 aldiz txikituz. 2012.urteko gastu finantzario ez hain handiak, ez dio ustiapeneko emaitzari zati handirik kenduko.

Zerga aurreko emaitzari mozkinen gaineko zerga nabarmena (salmenta osoen ia %1) gehituta ekitaldiko emaitza lortuko da, -324.151€koa 2010.urtean. Ustiapeneko emaitza positiboa izan zen, baina gastu finantzarioen ondorioz zerga aurreko ekitaldiko emaitza negatiboa izan zen. Urte hartako zerga positiboa izan zen baina hala ere ez zen nahikoa izan ekitaldiko emaitza positiboa bihurtzeko.

2011.urtean izandako emaitza finantzario negatiboa ustiapeneko emaitza baino txikiagoa zen, baina ez zegoen alde handirik. Mozkin geroraturik ez zeudenez zerga aurreko emaitza ekitaldiko emaitza izango zen, 106.169€koa hain zuzen ere.

2012ko emaitza finantzario txikiak zerga aurreko emaitza esanguratsua utzi zuen. Hori guztiari, zerga geroratua gehituta, salmenta osoen %5ekoa dena ekitaldiko emaitza lortuko dugu, 1.023.387€koa.

2010ean saltzen ziren 100€ren truk 105€ko gastuak sortzen ziren, 5€ galduz.

2011.urtean bestalde saltzen ziren 100€ren truke 98€ko gastua sortzen zen, enpresak mozkin bezala 2€ soilik izanik. Dirua galtzetik dirua irabaztera pasatu zen, nahiz eta oso gutxi irabazi.

2012.urtean, saltzen diren 100€ren truke 84€ko gastua jasaten du enpresak, 16€ko mozkin izanik. Mozkinen aldetik aztertutako urte hoberena izango da 2012.urtea, eta egoera hori mantentzea edo hobetzea espero da.

Galdu irabazi osoa aztertutakoan, kontu gehienak nahiko konstante mantendu direla aipatu behar dugu, gastu finantzarioak ezik.

	GALDU IRABAZIA								
	2012 (2011)			2011			2010		
	B. Absolutua	B. Erlatiboa	B. Horiz	B. Absolutua	B. Erlatiboa	B. Horiz	B. Absolutua	B. Erlatiboa	B. Horiz
N. Z. ZENBATEK. GARBIA	6.265.378,00	100,00	102,35	6.121.438,00	100,00	99,74	6.137.282,00	100,00	100
Zerbitzu prestazioengatik	6.265.378,00	100,00	102,35	6.121.438,00	100,00	99,74	6.137.282,00	100,00	100
HORNIKUNTZAK	-760.930,00	-12,14	96,22	-790.795,00	-12,92	96,17	-822.279,00	-13,40	100
lehengaien kontsumoa	-760.930,00	-12,14	96,22	-790.795,00	-12,92	96,17	-822.279,00	-13,40	100
USTIAPENЕК BEST. SARR.	144.568,00	2,31	112,02	129.055,00	2,11	90,71	142.273,00	2,32	100
PERTSONAL GASTUAK	-2.323.974,00	-37,09	103,93	-2.236.125,00	-36,53	105,24	-2.124.886,00	-34,62	100
USTIAPENЕК BEST. GAST.	-1.841.903,00	-29,40	102,75	-1.792.630,00	-29,28	101,24	-1.770.601,00	-28,85	100
IB. AMORTIZAZIOA	-508.001,00	-8,11	101,02	-502.893,00	-8,22	99,47	-505.553,00	-8,24	100
IB. NARRIADURA ETA B.E.	0,00	0,00	0,00	-1.619,00	-0,03	83,37	-1.942,00	-0,03	100
BESTELAKO EMAITZAK	2.887,00	0,05	6.873,81	42,00	0,00	0,46	9.206,00	0,15	100
USTIAPENЕКO EMAITZA	978.025,00	15,61	105,56	926.473,00	15,13	87,12	1.063.500,00	17,33	100
SARRERA FINANTZARIOA	0,00	0,00	0,00	9,00	0,00	300,00	3,00	0,00	100
bestelako finantza tresnen sar.	0,00	0,00	0,00	9,00	0,00	300,00	3,00	0,00	100
gastu finantzarioak	-134.266,00	-2,14	53,90	-249.085,00	-4,07	115,91	-214.896,00	-3,50	100
taldeko enpresekiko zorrak	-132.529,00	-2,12	53,21	-249.085,00	-4,07	115,91	-214.896,00	-3,50	100
hirugarrenetikiko zorrak	-1.737,00	-0,03	0,00	0,00	0,00	100,00	0,00	0,00	100
finantza tresnen narriadura	-104.795,00	-1,67	18,35	-571.228,00	-9,33	46,84	-1.219.643,00	-19,87	100
narriadurak eta galerak	-104.795,00	-1,67	18,35	-571.228,00	-9,33	46,84	-1.219.643,00	-19,87	100
EMAITZA FINANTZARIOA	-239.061,00	-2,14	29,14	-820.304,00	-13,40	57,18	-1.434.536,00	-3,50	100
ZERGA AUR. EMAITZA	738.964,00	11,79	696,03	106.169,00	1,73	-28,61	-371.036,00	13,83	100
MOZKINEN GAINEKO ZERGA	284.423,00	4,54	100,00	0,00	0,00	0,00	46.885,00	0,76	100
EKITALDIKO EMAITZA	1.023.387,00	16,33	963,92	106.169,00	1,73	232,75	-324.151,00	14,59	100

Politika Komertziala

Politika komertzialaren bidez enpresaren merkataritza marjin gordina kalkulatu nahi da, eta honek izandako bilakaera. Beste hitzetan, enpresak duen marjina burutzen dituen salmentei salmenta kostua kendu ondoren.

2010.urteko salmenta osoak 6.137.282€koak izan ziren eta salmenta kostuak urte hartarako 3.627.305€tan estimatu genituen. Hotel Amara Plazaren salmenta kostua ibilgetuaren amortizazioarekin, ustiapeneko bestelako gastuekin, hornikuntzekin eta pertsonal gastuarekin eraikiko dugu, baina pertsonalaren kasuan, administratzaile eta Hotelaren jatetxean lan egiten dutenen langileen soldata kanpo utziko dugu. Izan ere, jatetxeak edukitzen dituen sarrerak ez ditugu salmenta garbietan sartu. Orduan, 2010eko merkataritza marjin gordina 2.509.977€koa izan zen, salmenta osoen %41a. Hau da, 2010eko salmenta kostua salmenta osoen %59 bereganatzen zuten.

2011.urteko salmentak 6.121.438€koak izan ziren, eta urte hartako salmenta kostuak 3.645.509€raino heldu ziren. Salmenta garbiak murrizketa txiki bat jasan zuten eta salmenta kostuak igoera txiki bat. Horren ondorioz, salmenta kostuak salmenta garbien %60a bereganatu zuten, 2.475.929€ko merkataritza marjin gordina izanik. 2010.urtearekin konparatuz merkataritza marjin gordina 34.048€tan murriztua ikusi da, salmenten murrizketa eta salmenta kostuen igoeragatik, nahiz eta ez izan aldaketa osa nabarmena.

2012.urtean salmentak hazi dira, baina salmenta kostuak baita ere, 6.265.378€ eta 3.718.553€ hurrenez hurren. Salmenta kostuak salmenta osoen %59a bereganatzen dute, merkataritza marjin gordina %41 izan da, 2.546.825€ekin. 2011tik-2012ra 70.896€ko igoera eman da merkataritza marjin gordinean, balio erlatiboan %1ean, salmenta garbiak salmenta kostuak baino gehiago hasi direlako.

Bilakaera guztia aztertuta, Hotel Amara Plazaren salmenta garbiak eta salmenta kostuak ez dute aldaketa esanguratsurik jasan urteetan zehar, eta horren ondorioz, merkataritza marjin gordina nahiko konstante mantendu da.

	2012		2011		2010	
	B.Absolutua	B.Erl	B.Absolutua	B.Erl	B.Absolutua	B.Erl
Salmenta Garbiak	6.265.378	100	6.121.438	100	6.137.282	100
- Salmenta kostua	-3.718.553	-59	-3.645.509	-60	-3.627.305	-59
= Merk. marjin gordina	2.546.825	41	2.475.929	40	2.509.977	41

$$\text{MMG ALDAKUNTZA (2011-2010)} = -6479,75 - 27568,29 = -34.048,04$$

$$\begin{aligned} (6121438 - 6137282) * 0,41 &= \\ (0,40 - 0,41) * 6121438 &= \end{aligned}$$

$$-6.479,75$$

$$-27.568,29$$

$$\mathbf{-34.048,04}$$

$$\text{MMG ALDAKUNTZA (2012-2011)} = 58219,20 + 12676,86 = 70.896,06$$

$$\begin{aligned} (6265378 - 6121438) * 0,40 &= \\ (0,41 - 0,40) * 6265378 &= \end{aligned}$$

$$58.219,20$$

$$12.676,86$$

$$\mathbf{70.896,06}$$

Pertsonal Politika

Pertsonal-politikaren bitartez, langile bakoitzaren produktibitatea jakin dezakegu. Baita ere langile bakoitzak batz besten enpresari eragiten dion urteroko pertsonal gastua eta pertsonal gastu bakoitzeko zenbateko salmentak burutuko diren jakitera laguntzen digu. Langile bakoitzak batz besten 85.240,03€ko salmentak burutu zituen 2010.urtean zehar. 2011ko ekitaldian, langile bakoitzeko salmentak jaitzi ziren 83.855,32€ra eta 2012an beheranzko joera jarraitu zuten 82.439,18€ko zifralortu arte.

Argi ikusten da 2010.urteetik langile bakoitzak sortutako salmentak jaitzi egin direla, nahiz eta sarreren murrizketa oso esanguratsua ez izan. 2010.urteetik langile gehiago kontratatu direla da murrizketa honen arrazoia. 2011an, 2010ean baino langile bat gehiago kontratatu zen, eta 2012an, aurreko urtean baino beste hiru langile gehiagorekin lan egin zuen enpresak. Horren ondorioz, langile bakoitzeko salmentak zati txiki batean murriztu dira, nahiko egonkor mantenduz urteetan zehar.

Langile bakoitzak enpresari eragiten dion gastuari dagokionez (langileen batz besteko soldata), 2010. urtean 29.512,31€ izan zen, 2011an 30.631,85€ eta 2012an 30.578,61€. 2011.urtean soldaten igoera txiki bat nabaritzen da 2010. urtearekin konparatuz. Behar bada, urteroko soldaten igoeraren ondorioz izan daiteke. Bestalde, 2012.urtean batz besteko soldatak murrizketa txiki bat jasan zuten. Kontratutako hiru langile berrien soldata besteekin alderatuz txikiago da eta horren ondorioz batez bestekoa murrizten du. Bukatzeko, enpresak pertsona gastuan inbertitutako euro bakoitzagatik zenbateko salmenta edukiko duen azalduko dugu. 2010.urtean pertsonal gastuan inbertitutako euro bakoitzeko 2,89€ko salmentak burutzen ziren. 2011.urtean inbertitutako euro bakoitzeko 2,74€ko salmentak sortzen ziren, eta 2012.urtean 2,7€.

Bertan, 2010.urtean etekin handiena lortu zuela ikusten da. 2011ko ekitaldiko salmentak 2010ekoak baino txikiagoak izan ziren, nahiz eta nahiko antzekoak izan eta bestalde, 2011.urtean pertsonal gastuak igoera txiki bat jasan zuen (zatitzailea txikitu eta zatiki handitu), horren ondorioz etekina txikituz. 2012.urtean aldiz aurreko urte bereko etekina mantentzen da, aldaketa esanguratsurik jasan gabe.

Urteko salmentak handitu gabe pertsonal gehiago kontratatzen duela oso esanguratsua da. 2012an kontratatutako hiru langile berrien artean, horietako bik garbiketan lan egiten dute eta bestea kafetegian, Memoriako 20. atalean ikusi dezakegun bezala. Langile berri hauen lanpostua ikusita, Hotel Amara Plazak eskaintzen duen kalitatea hobetu nahi izan duela pentsatu dezakegu, garbitasun handiago bat eskainiz.

Errotazio Fondoa

Errotazio Fondoak enpresak dituen behar finantzarioak aztertzen ditu, hauek nola estaltzen diren ikusiz eta erabilitako finantzaketa berreskuratzeko duen gaitasun aztertuz. Hori dela eta, inbertsio eta finantzaketaren artean oreka bat mantentzea beharrezkoa da, likidezia arazoak edo eta jarduera etendura egoerak gerta ez daitezen. Errotazio Fondoaren bidez, enpresaren arazo finantzarioa kuantifikatzea nahi da. Oreka finantzarioa mantentzeko, enpresak inbertsio zehatz bat finantzatzeko erabiltzen dituen kapitalak inbertsio hori enpresan egongo den denboran zehar gutxienez egon beharko lukete enpresan. Hau da, epe luzeko aktiboek, epe luzeko finantzaketarekin finantzatuta egon beharko liriateke.

Horretarako, aktiboek behar finantzarioa suposatzen dutela jakin behar da eta pasiboak aldiz, behar hori murriztu edo erabilgarritasun finantzarioa sortzen dutela. Aktiboko kontuak zeinu positiboa izango dute eta pasibokoek aldiz, negatiboa. Errotazio fondoaren emaitza negatiboa erabilgarritasun finantzarioa sortu duela adieraziko du. Emaitza positiboa aldiz, behar finantzarioak sortu direla.

Hotel Amara Plazaren kasuan, errotazio fondo negatiboa izan da 2012.urtean, -261.085€koa. 2011 eta 2010.urteetan errotazio fondo positiboa izan zuen, 102.441€ eta 1.361.770€koa hurrenez-hurren. Behar finantzarioak sortzetik, erabilgarritasuna sortzera pasatu da azkeneko urtean.

Hasteko, "zirkulatzailaren finantzaketaren behar gordina" kalkulatzeko izakinak eta bezeroak sortzen duten beharra batu behar da (beti positiboa). Lortutako emaitzari hornitzaileen zifra kenduko diogu "ustiapeneko errotazio Fondoaren beharrak" azpi emaitza sortuz. Kasu honetan emaitza negatiboa izango da 2012.urtean (-49.156€), hornitzaileak sortutako erabilgarritasuna izakinak eta bezeroek sortutako beharra baina handiagoa delako. 2011 eta 2010ean aldiz, Zirkulatzailaren finantzaketaren behar gordinak hornitzaileek sortutako erabilgarritasuna baino handiagoak ziren eta horren ondorioz Ustiapeneko errotazio fondoaren beharrak positiboak izan ziren, 155.793€ eta 450.691€koak.

Ondoren "Errotazio Fondoaren Beharrak" kalkulatzeko bestelako aktibo zirkulatzailak gehitu eta bestelako pasibo zirkulatzailak kendu behar dira. 2012ko bestelako pasibo zirkulatzailak bestelako aktiboak baino askoz handiagoak izan dira, beraz errotazio fondoaren beharrak emaitza negatiboagoa izango da, -511.912€. 2011.urtean bestelako pasibo zirkulatzailak "UEFB" eta bestelako aktibo zirkulatzailak sortutako beharrak baino handiagoak izango ziren, "EFB" negatiboa izanik, -250.616€. 2010.urteko "UEFB" emaitza handia bestelako pasibo zirkulatzailak sortutako erabilgarritasunak baino handiagoa izango zen, Errotazio fondoaren beharrak positiboak izanik, 188.709€. Bukatzeko, "Errotazio Fondoaren Beharrei" erabilgarria batu behar zaio "Errotazio Fondoa" lortzeko. Hotel Amararen kasuan 2012.ekitaldian ikur negatiboa izango da, baina 2011 eta 2010ean positiboa aldiz. 2012.urtean pasibo Zirkulatzailaren bitartez lortutako finantzaketa aktibo Zirkulatzailan egindako inbertsioaren zati bat estaltzen du. Epe motzeko Inbertsio osoa finantzatuta dago eta gainera soberakina gelditzen da epe luzean erabiltzeko.

2011 eta 2010.urteetan Epe luzeko finantzaketa erabili beharko da aktibo zirkulatzailan egindako inbertsioa estaltzeko.

	2012	2011	2010
Hotel Amara	-261.085	102.441	1.361.770
Hotel Londres	-2.215.081	1.126.902	3.347.462
Village Park	-164.136	901.396	626.702
Vitoria- Gasteiz	2.711.173	1.642.185	890.675

Nahiz eta errotazio fondoak oso desberdinak izan, joera berdina mantentzen dute, Vitoria-Gasteiz Hotela izan ezik. Krisiaren eragina sektorean nabaritu da. Epe luzeko krediturik ematen ez denez, enpresek aktibo korrontean dutenarekin lan egin behar dute, eta honek aldi berean errotazio fondoa murriztu egiten du, negatibora bihurtu arte. Errotazio fondo positiboa edukitzetik negatiboa edukitzera pasatu dira Hotel guztiak, Vitoria-Gasteiz Hotela izan ezik.

3 urteetan zehar errotazio fondo positiboa duen Hotel bakarra Vitoria-Gasteiz izango da, eta gainera gero eta handiagoa. Bestalde, esan dugun bezala, Hotel Amarak errotazio fondo negatiboa izango du 2012.urtean. 2010ean 1.361.770€ko errotazio fondoa izatetik, 2010ean 261.085€ko errotazio fondo negatiboa izatera pasatu da. Murrizketa hau bereziki diruzaintzak jasandako murrizketarekin erlazionatuta dago. Azkenengo garaian bankuek ez dute krediturik ematen eta enpresek bere diruzaintzan eskua sartzen dute hau murriztuz. Honen ondorioetako bat, argi dago, errotazio fondo negatiboa izango da, ondo kudeatzen ez bada arriskutsua izan daitekeena.

Hotel Village-Park antzeko egoera bat aurkezten du, azkenengo urtean errotazio fondo negatiboa izanik.

Hotel Londresen kasuan, erabilgarritasuna sortzen du, hau da, errotazio fondo negatiboa, Hotel Amara Plaza baino askoz negatiboagoa. Epe motzeko finantzaketarekin epe motzeko behar guztiak estaltzen dira eta gainera soberakinarekin epe luzeko beharren zati handi bat ere. Ez da oso egoera egokia finantzaketa epe motzean bueltatu behar delako eta bestalde aktibo ez korrontea denbora gehiago jarraituko duelako enpresan.

Argi dago, errotazio fondoaren ikuspuntutik, egoera hobereana aurkezten duen enpresa Hotel Vitoria-Gasteiz dela, errotazio fondo positiboa duena.

Errotazio Fondoaren Beharren Aldaketan Analisia

Izakinen Aldaketa:

Sozietateak behar finantzarioa murrizten du izakinen aldaketari esker. 2010etik 2011ra, 62.923€ko beharra murriztu du eta 2011tik 2012ra, berriz ere behar finantzarioa murriztu du 20.964€tan. Nahiz eta enpresaren jardura ez den izakinak saltzea, izakinen kontsumoa bere jarduerarekin proportzioan joan beharko luke. Errotazio koefizienteak aztertuz, gero eta izakin gutxiago erosten ditu, baina kontsumoa ere txikiagoa da urte-urte. Hala ere, izakinek izandako murrizketa proportzionalki handiagoa da lehengaien kontsumoak izandako murrizketa baino. Horren ondorioz erabilgarritasun finantzarioa sortzen da.

	2012	2011	2010
SALMENTA			
Izakinen kontsumoa	760.930,00 = 6,40	790.795,00 = 5,65	822.279,00 = 4,05
Izakinak	118.924,00	139.888,00	202.811,00
e	360 = 56,26 6,40	360 = 63,68 5,65	360 = 88,79 4,05

Merkataritza Kreditu aktiboen aldaketa (Zordun komertzialak):

Hasiera bateko begirada batean, bezeroek momentuan ordaintzen dutela pentsatuko dugu. Baina aipatu dugunez, Hotel Amara Plazak enpresetako bezero asko ditu, eta askotan, enpresarekin harreman ona izanda, denbora bat pasata ordaintzen da. Berdina gertatzen da bidai agentziekin, agentzian bertan ordaintzen dela baina gero agentziak Hotelari beranduago ordaintzen diola.

Bezeroak 2011.urtean 2010.urtearekin konparatuz 20.921€tan hasi dira. Honek behar finantzarioa sortzen du. Kobrantza epea 2011.urtean egun batzuetan luzatu zen. 2010.urtean 47 egun igarotzen ziren salmenta eginik kobratu arte eta 2011.urtean 49 egun.

2012.urtean, bezeroen kontua 287.294€-tan murriztu da aurreko urtearekin konparatuz. Honen ondorioz, urte batetik bestera behar finantzarioa murrizten da bezeroen kontuari esker. Honen arrazoia kobrantza epearekin erlazionatuta dago batez ere. 2011.urtean 49 egun igaro behar baziren kobratzeko, 2012.urtean politika gogortu ondoren 31 egunetan kobratzen da, bezeroek azkarrago ordaintzen dute.

	2012	2011	2010
KOBRANTZA			
Salmenta Garbiak	6.265.378,00 = 11,81	6.121.438,00 = 7,49	6.137.282,00 = 7,70
Bezeroak	530.524,00	817.818,00	796.897,00
e	360 = 30,48 11,81	360 = 48,10 7,49	360 = 46,74 7,70

Merkataritza kreditu pasiboen Aldaketa (Hartzekodun komertzialak):

Hornitzaileen kontua 252.896€tan hasi zen 2011an, erabilgarritasun finantzarioa sortuz. Erosketak ordaindu beharreko epea ere luzatu egin zen 74 egunetik 108 egunetara, hori dela eta behar finantzarioa murriztuta ikusiko da.

Bestalde, 2012. urtean hornitzaileek murrizketa bat jasan dute 2011.urtearekin alderatuz, bereziki 103.309€koa. Honek, erabilgarritasuna murrizten du edo behar finantzarioa handitzen du. Urte honetan, ordaintzeko epea murriztu egin da 90 egun izanda hornitzaileei ordaintzeko epemuga.

	2012	2011	2010
ORDAINKETA			
Erosketa Garbiak	2.811.011,00 = 4,02	2.676.095,00 = 3,34	2.679.970,00 = 4,88
Hornitzaileak	698.604,00	801.913,00	549.017,00
e	360 = 89,47	360 = 107,88	360 = 73,75
	4,02	3,34	4,88

Ustiapeneko Errotazio Fondoaren Aldaketa:

2010etik 2011ra jasandako aldaketa negatiboa izan da, bereziki 294.898€koa. Honen ondorioz izakinetan, bezeroetan eta bereziki hornitzaileetan jasandako aldaketei esker, erabilgarritasun finantzarioa sortu da.

2011tik 2012ra jasandako aldaketa, negatiboa izan da baita ere. Bereziki bezeroak murriztutako behar finantzarioagatik, ustiapeneko errotazio fondoaren aldaketak 204.949€ko erabilgarritasun finantzarioa sortu du.

Bestelako Kreditu Aktiboen eta bestelako kreditu pasiboen aldaketa:

Bestelako aktibo zirkulatzailak 2010-2011 urtean erabilgarritasun finantzarioa sortu dute, nahiz eta oso esanguratsua ez izan (15.529€). Epe berean, bestelako pasibo zirkulatzailen aldaketak erabilgarritasun gehiago sortarazten du, bereziki 128.898€koa. 2010-2011.urtera, bestelako aktibo eta pasibo zirkulatzailen aldaketari esker, 144.427€ko erabilgarritasun finantzarioa sortu da. Bezeroek eta hornitzaileek izan duten aldaketa bestelako aktibo eta pasiboek izan dute baita ere. Hotel Amara Plazak kobrantza epea murriztu du eta ordainketa epea luzatu.

2011tik 2012rako aldaketa aztertuz, bestelako aktibo zirkulatzailen 91€ko behar finantzarioa sortu dela ikusten da. Baina bestelako pasiboak aztertzerakoan, erabilgarritasun finantzarioa sortu dela ikusi dezakegu, 56.438€koa. Beraz, pasiboek sortutako erabilgarritasunari aktiboek sortutako beharra kenduta, 56.347€ko erabilgarritasuna geratuko da.

Errotazio Fondoaren Beharren aldaketa:

2010tik 2011ra, E.F.B.A negatiboa izan da beraz aktibo eta pasibo zirkulatzailari esker (erabilgarria izan ezik) lortu duen erabilgarritasuna behar zuena baino handiagoa izan da. 439.325€ko finantza soberakina erabilgarriak jasan duen aldaketaren parte bat edo guztia finantzatzera bidaliko da.

2011tik 2012ra ere, E.F.B.A negatiboa izan da, 261.296€koa. Epe motzean izandako behar finantzarioak lortutako erabilgarritasuna baino txikiagoak izan dira (erabilgarria kontuan hartu gabe).

Erabilgarriaren Aldaketa:

2010.urtean Hotel Amarak behar finantzario handia jasan zuen diruzaintzan egindako inbertsio handiagatik. Baina 2011.urtean diruzaintzan egindako inbertsioa askoz txikiagoa izan zenez, erabilgarritasun nabarmena sortu zen. 820.004€-ko erabilgarritasuna hain zuzen ere. Geroago Diru fluxuen egoera orrian ikusiko dugun bezala, bere ustiapenean sortutako aberastasunarekin, bere taldeko enprekin zuen zorra ordaintzeko nahikoa izan ez zuen eta horregatik diruzaintza erabili zuen.

2012.urtean egindako inbertsioa 2011.urtekoa baino txikiagoa izan zen baita era. Horren ondorioz epe honetan erabilgarritasun finantzarioa ere sortu da, 102.230€koa. Kasu honetan, taldeko enpresei ordaindutako zorra txikiagoa izan da, baina hala ere diruzaintza erabili behar izan du zati bat ordaintzeko.

Errotazio Fondoaren Aldaketa:

2011-2010. urtearen errotazio fondoaren aldaketa negatiboa izan da. 2011.urtean 1.259.359€ko erabilgarritasun soberakina sortu du erreko urtearekin konparatuz. Hau da, 2010.urtean jasandako errotazio fondoaren behar finantzarioa 2011.urtean jasandakoak baino askoz handiagoa da. Bi urte horietan errotazio fondoa positiboa da, baina 2010ekoa askoz handiagoa. Erabilgarritasun hori, hain zuzen ere taldeko enprekin zegoen zorraren zati bat ordaintzera bidali zen. Badakigunez, Hotel Amara Plazak 2011.urtean 2.537.955€ ordaindu zituen taldeko enprekin zuen zorra murrizteko.

2012.urteko errotazio fondoa negatiboa da. Beraz erabilgarritasun finantzarioa sortu da. 2011.urtean behar finantzarioak izatetik, 2012ra erabilgarritasuna izatera, 363.526€ko erabilgarritasun osoa sortu da. 2011-2010 baino erabilgarritasun gutxiago sortu da, baina hala ere, 2012-2011.urtean sortutako erabilgarritasuna taldeko enprekin dagoen zorraren zati bat estaltzera bideratu da. 2012.urtean 1.883.240€ bideratu ziren taldeko enpresei.

Laburbilduz, Hotel Amara Plazak epe laburrean behar finantzario asko izan ditu, bereziki erabilgarrian. Horren ondorioz, salmenta, kobrantza eta ordainketa politikak gogortu ditu erabilgarritasun finantzario handiagoa lortzeko. Eta bukatzeko, urteetan zehar izan duen taldeko enprekin zorrak ordaintzen joan da. Epe laburreko behar finantzarioa murrizten joan epe luzeko zorrak ordaintzeko.

ESANAHIA:

Hotel Amara Plaza errotazio fondoa ikur aldaketa du aztertutako urteetan, eta horrek ez du egonkortasunik azaltzen. Zeinua negatiboa da 2012.urtean, baina zeinu positiboa izan zuen 2011 eta 2010.ekitaldietan. Aldaketa honen eragilea diruzaintza izan da. 2010.urteetik murrizketa oso handia gertatu da eta horren ondorioz, pasibo korrontea aktibo korrontea baino handiagoa izatera heldu da. Ondo kudeatzen ez bada arriskutsua izan daiteke, enpresa likidezia gabe gelditzen ari baita.

Enpresaren Finantza-Egonkortasunaren Analisia.

Kaudimenaren Analisia.

Enpresaren finantzaketa eredia eta inbertsio-eredua aztertzea nahi da. Horretarako ratioak kalkulatzeko erabilgarriena.

Epe Laburreko Kaudimena

Aktibo zirkulatuak ematen duen likidezia erabilia, enpresak zer gaitasun daukan bere epe laburreko zorrei aurre egiteko analizatzen du epe laburreko kaudimena. Maniobra-funtsaren ratioa ere deitzen zaio.

Hotel Amara plaza kaudimen oso ona duen enpresa izatetik kaudimen gabea izatera pasatu da aztertutako 3 urteetan. 2010.urtean enpresak ordaindu behar zituen 100€ bakoitzeko aktibo zirkulatuak 262€ zituen, 2011.urtean 108€ eta 2012.urtean soilik 78€. kaudimena asko murriztu dela ikusi dezakegu. 2010.urtean oso egoera ona aurkezten zuen, baina 2012an bere epe motzeko zorak ordaintzeko ez du diru nahikorik aktibo korrontean.

Aipagarria 2011.urtean jasandako ratio murrizketa da, %50a baino gehiagokoa. Aktibo zirkulatuak ia 900.000€-ko murrizketa jasan zuen (%40), batez ere diruzaintzan egindako inbertsio txikiagatik (800.000€ baino gehiagoko murrizketa). Honen arrazoia, taldeko enprekin dagoen zorraren zati baten ordainketa izan da.

Pasibo zirkulatuak aldiz 400.000€ gertuko igoera jasan zuen. Igoera honen arrazoia administrazio publikoak eta hornitzaileak eta hainbat hartzekodunak dira, azken honek jasandako igoera 250.000€koa baino handiagoa izanik Beraz, zatitzailea murriztuz eta zatikia handituz, biek eragiten dute azken emaitzaren murrizketarako.

2012.urtean kaudimen gabeko urtea da. Aktibo zirkulatuak desinbertsio egoera jarraitzen da eta 400.000€ gutxiago inbertitu dira, batez ere bezeroetan eta diruzaintzan (300.000€ eta 100.000€ko murrizketa hurrenez-hurren). Epe luzeko zorraren 1.883.240€ ordaindu dira. Bestalde pasibo zirkulatuak murrizketa txiki bat jasan du baina ez da oso aipagarria, soilik 50.000€koa. Ondorioz, aktibo zirkulatuak murriztuz eta pasibo zirkulatuak ia konstante mantenduz kaudimen ratioa behera egingo du, bere aktibo zirkulatuak guztiekin bere epe motzeko zorrei aurre egitera gai ez den arte.

	2012	2011	2010
Hotel Amara	0,778	1,084	2,622
Hotel Londres	0,303	1,491	2,843
Village Park	0,863	1,656	1,396
Vitoria- Gasteiz	3,059	1,475	1,246

Hotel Amara jasan duen bilakaera ez da ona izan, baina beste Hotel gehienek bilakaera berdina mantendu dute. Kaudimendunak izatetik kaudimen gabea izatera pasatu dira azkeneko urtean, Vitoria-Gasteiz hotela izan ezik.

Ikus dezakegun bezala, Hotel Amara Plazak Hotel Londres baino egoera hobeto bat aurkezten du azkeneko urtean, Hotel Londresentzat arriskutsua izan daitekeena. Hotel Village-Parken kasuan, 2012.urtean Hotel Amara Plazaren antzeko ratioa du, nahiz eta bilakaera desberdina izan.

Bestalde, Vitoria-Gasteiz beste hiru Hotelen egoera desberdina mantendu du, baina orain oso ratio altuarekin. Hasierako begirada batean egoera oso ona aurkezten du.

Likidezia

Enpresak dituen baliabide likidoekin zer gaitasun duen zorrak ordaintzeko ikusiko dugu. Hotel Amara produktuen salmentara bideratuta ez dagoenez, izakinak ez dira aktibo zirkulatuzaileko konturik garrantzitsuena izango. Ratioak begiratu aurretik jakin dezakegu likideziaren joera kaudimenaren antzekoa izango dela.

2010. urtean enpresak ordaindu behar zituen 100€ bakoitzeko, 238€ zituen bihurturri ziurra eta erabilgarriaren artean. 2011. urtean jaitsiera bat izango du 0,97ko ratioa helduz. Nahiz eta beste Hotelekin konparatuz ratio txarrena eduki, oraindik ere egoera egokia izango zen. Hau da, epe motzean ordaindu behar ziren 100€ bakoitzeko, aktibo zirkulatuzailean (izakinak kontuan eduki gabe) 97€ gongo ziren.

Bukatzeko 2012. urtean, likidezia ratio beheranzko joera jarraituz egoera desegokira helduko da. Orain zorretan dauden 100€ bakoitzeko soilik 68€ gongo dira bihurturri ziurra eta erabilgarriaren artean. Likidezia eskasa edukiko duela esango dugu.

	2012	2011	2010
Hotel Amara	0,686	0,979	2,380
Hotel Londres	0,290	1,474	2,816
Village Park	0,824	1,611	1,331
Vitoria- Gasteiz	3,059	1,475	1,241

Beste Hotelek ere epe motzeko kaudimenaren antzeko joera mantentzen dute. Hotel Amara eta Village Park antzeko ratioa dute, bigarren hau hobea baina biek likidezia eskasarekin.

Egoera hobereana aurkezten duen Hotela, hemen ere, Vitoria-Gasteiz Hotela izango da. Ez du beste hiru Hotelen joera mantendu eta kasu honetan handiagotu egin da, ia Amara Plaza Hotela baino 5 aldiz gehiagoko ratioa edukita.

Bestalde, konparatutako hotelen artean egoera kaskarrena duen Hotela, Londres Hotela izango da. 2012. urtean beherakada izugarria izan du, kaudimenean gertatu zaion bezala.

Erabilgarritasuna

Ratio honek adierazten digu epe laburreko zenbat zor likidatu dezakegun baliabide likidoekin.

Lehendik aipatu dugunez, diruzaintzan egindako inbertsioa txikituz joan da urtez-urte. Lehenik eta behin 2010. urteko erabilgarritasun ratioa begiratu, epe motzean zorretan zeuden 100€ bakoitzeko 140€ gongo ziren diruzaintzan. Erabilgarritasun ratio optimoa 0,1-0,3 tartean egongo bada, Hotel Amarak diru gehiegi izango erabilgarrian. Erabilgarritasun gehiegi zuen.

2011. urtean diruzaintzak murrizketa garrantzitsu bat jasan zuen (800.000€) eta honen ondorioz ratioa 0,29koa izango zen. Aipatu dugunez, diruzaintzako desinbertsio hau bere taldeko hartzekodunei ordaindutako zorraren zati batengatik da. Pasibo zirkulatuzailean zeuden 100€ bakoitzeko 29€ gongo ziren erabilgarrian. Erabilgarritasun arabera egoera oso ona zuen.

2012. ekitaldian, diruzaintzak 100.000€ko murrizketa jasango du, baina pasibo zirkulatuzaileak 50.000€ko murrizketa ere. Diruzaintzan gertatu den murrizketa %30koa izango da, baina pasibo zirkulatuzaileak jasandakoa soilik %5 izango da. Beraz, erabilgarriak jasandako murrizketa garrantzitsuagoa da eta horrek erabilgarritasun ratioa txikituko du. Hala ere, sozietateak erabilgarritasuna edukiko du, ordaintzeko dauden 100€ bakoitzeko 21€ izanik diruzaintzan.

	2012	2011	2010
Hotel Amara	0,214	0,289	1,397
Hotel Londres	0,168	0,311	0,406
Village Park	0,087	0,173	0,052
Vitoria- Gasteiz	0,132	0,318	0,379

Beste Hotel guztiekin konparatuz, Hotel Amara Plaza egoera hobereanean egongo da. Hotel Londres eta Vitoria-Gasteiz erabilgarritasuna izango dute, batak bestea baino gehiago, baina ez dira arazoetan egongo. Bi Hotel hauen aurreko urteetako erabilgarritasun ratioak oso onak izan ziren. Ia 40 € zuten ordaindu behar ziren 100€ bakoitzeko, baina azkeneko urtean diruzaintzaren murrizketarekin ratioak ere asko txikitu dira. Bestalde, Village-Park Hotela ez duela erabilgarritasun nahikorik esango dugu. 2010.urtean ez zuen nahikorik, 2011.urtean egoera hobetu zuen baina 2012an berriro ere ez du erabilgarritasun nahikorik. Antzeko bilakaera dute Hotel guztiek, denek jasan dute murrizketa esanguratsu bat 2012.urtean. Lehenago aipatu dugun bezala, krisi garaian kredituak lortzea zaila izango da, eta horren ondorioz enpresek diruzaintzatik aterako dute behar duten diru guztia. Honen emaitza diruzaintzaren murrizketa globala izango da sektore osoan, erabilgarritasun ratioa kaltetuz.

Epe luzeko kaudimena

Enpresak dituen aktiboekin enpresak dituen zor eta betebeharren galdagarritasunari aurre egiteko gaitasuna aztertzen du epe luzeko kaudimenak, beti ere enpresaren ohiko eta eguneroko funtzionamendua aldatu gabe. Enpresaren hartzekodunentzat segurtasun adierazlea da. Baita ere, negozioaren hazkuntza-gaitasunaren adierazlea.

Hotel Amara Plaza epe luzean kaudimendun enpresa dela esango dugu. 2010.urtean zorretan zuen 100€ bakoitzeko, aktibo osoan 169€ zuten. 2011.urtean 184€ eta 2012.urtean 221€. Bilakaera positiboa izan du eta gero eta hobeago dago kaudimenaren arabera. Bere hartzekodunek segurtasun handia dute Hotel Amarekin duten zorrak kobratuko dutela.

Beste Hotelekin konparatuz, Amara Plaza Hotela egoera ona edo egokia aurkezten zuen 2010.urtean, Vitoria-Gasteiz Hotela izan ezik, beste Hotelen ratio berdina zuen. 2011 egoera hori hobetu zen eta azkenik 2012.urtean oso ondo dagoela esango dugu. Sektoreko beste Hotelen baino hazkuntza nabariagoa izan du, egoera optimoa azaltzen du.

	2012	2011	2010
Hotel Amara	2,218	1,843	1,693
Hotel Londres	1,856	1,506	1,631
Village Park	1,832	1,687	1,668
Vitoria- Gasteiz	7,268	3,192	2,925

4 Hotelak aztertuta, Vitoria-Gasteiz da besteengandik desberdintzen dena. 2010 eta 2011.urteetan oso ratio onak edukita (3 inguruan) azkeneko urtean 7,3ko ratioa du. Hau da, zorretan duen 100€ bakoitzeko 730 ditu bere aktiboan. Diferentzia nabarmena da beste hotel guztiekin konparatuta.

Hotel Londres eta Village Park ikusita, biak antzeko egoeran daude. Bilakaera ia berdina izan dutenak azkeneko urtean igoera txiki bat izanik 1,8ko ratioa lortuz. Beraz

ratio guztiak aztertuz, Hotel Amara plaza egoera hobereanean dagoela esango genuke, Vitoria-Gasteizek duen aukera kostua oso handia delako. Hala ere, Hotel Londres eta Village park egoera egokia dute. Enpresa guztiek beraien zorrei aurre egiteko gaitasun ona dute.

Finantza Autonomia

Kanpoko hirugarrenei kasurik egin gabe, enpresak bere kudeaketa, inbertsio eta finantzaketa erabakiak hartzeko duen gaitasuna neurtzen du finantza autonomiak.

Hotel Amara Plazaren aktiboaren %41 Balio propioen %100arekin finantzatuta zegoen 2010.urtean. Aktiboaren %46 2011.urtean eta %55 2012.urtean. Bilakaera honekin, balio propioek, aktiboa gehiago eta gehiago finantzatzen ari dira. Balio propioek garrantzia erlatiboa irabazten ari dira eta.

Balio propioak handitu diren heinean, aktiboa murrizten joan egin da. 2011.urtean balio propioek 100.000€tan hazi ziren aurreko urtearekin konparatuz, baina garrantzitsuena aktibo osoa ia 2.000.000€ko murrizketa izan zuela, amortizazioa eta narriaduraren eraginez. 2012.urtean baita ere joera berdina mantenduz, balio propioek 1.000.000€ko hazkuntza izan zuten eta aktibo osoa 1.000.000€ko murrizketa. Honekin azaltzen da finantza autonomiak izan duen igoera.

	2012	2011	2010
Hotel Amara	0,557	0,467	0,419
Hotel Londres	0,461	0,336	0,387
Village Park	0,454	0,407	0,401
Vitoria- Gasteiz	0,862	0,687	0,658

Konparaketa eginez, beti gertatzen den bezala Vitoria-Gasteiz Hotelak ratio altuena du. Kasu honetan, bere aktibo ia osoa baliabide propioekin finantzatuta dagoela esan nahi du, %86ko ratioarekin. Enpresak bere kudeaketa, inbertsio eta finantzaketari buruzko erabakiak hartzeko gai da inori baimena eskatu gabe.

Ondoren beste hiru enpresak etorriko dira. Hotel Amara zer edo zer hobea egongo da baina nahiko antzera dabilta azkeneko urtean, %50eko ratiotik gertu. Egoera onean daudela esango dugu.

Bilakaera aztertuz, hemen dudarik gabe bilakaera positiboa dute enpresa guztiek. Urteak igarota ratio hobea dute 4 enpresek. Hala ere, 2011.urtean Hotel Londresek ratioa kaltetuta ikusi zuen, nahiz eta 2012rako egoera hobetu izan.

Zorpetzea

Enpresak lortu duen finantzaketatik, akziodunek egindako ekarpenen gain hartzekodunei dagokion finantzaketa zatia da. Kanpo-finantzazioaren ratio ere deitzen zaio. Finantzaketa egitura adierazten du, enpresak duen zorpetze-maila.

2010.urtean 1,44eko ratioa zuen Hotel Amara Plazak, 2011.urtean 1,19 eta 2012an 0,89. Argi ikusten da Hotelaren finantza egitura hobetu egin dela aztertutako 3 ekitaldietan. 2010ean hartzekodunek kobratzeko zuten dirua berreskuratzea 2012an baino zailagoa zen. 2010Ean zorpetuago zegoen.

Hobekuntza honen arrazoia pasibo galdagarriak jasandako murrizketa eta aldi berean fondo propioek izandako hazkuntzan oinarritzen da. Nahi eta bilakaera positiboa izan, oraindik ere nahiko zorpetuta dago Hotel Amara Plaza.

	2012	2011	2010
Hotel Amara	0,838	1,197	1,443
Hotel Londres	1,169	1,978	1,584
Village Park	1,202	1,456	1,496
Vitoria- Gasteiz	0,16	0,456	0,519

Argi ikusten denez, Vitoria Gasteiz zorpetuta ez dago, ia pasiborik ez baitu. Azkeneko urtean ia zeukan zor guztia ordaindu du.

Bestalde, beste hiru enpresen artean Hotel Amara da egoera hoberena aurkezten duena. Hotel Londres eta Village Park nahiko zorpetuta ikusten dira. Hotel Londres 2011.urtean oso zorpetuta egon zen, baina 2012rako hobetu egin du, nahiz eta oraindik zorpetuta ibili.

Errentagarritasun Ekonomikoa (ROI)

Enpresaren zuzendaritzak edo kudeatzaileak eskuartean dituzten inbertsio edota baliabideekin etekina edota mozkinak lortzen duten gaitasuna neurtu nahi da, enpresa nola finantzatzen den berdin delarik. Beste hitz batzuetan, zuzendarien eraginkortasuna edo efikazia neurtzen du errentagarritasun ekonomikoak. Horretarako, BAI aldagaiarekin kalkulatu ditugu mozkinak. BAI kalkulua, Gastu finantzarioak eta mozkinen gaineko zerga kontuan hartzen ez duen irabazia da.

2012	Hotel Amara	Hotel Londres	Hotel Village-Park	Hotel Vitoria-Gasteiz
Ekitaldiko Emainza	1.023.387	843.830	36.901	710.634
Finantza gastuak	134.266	45.674	8.591	0
Mozkinen gaineko Zerga	-284.423	190.016	15.815	191.212
BAI	873.230	1.079.520	61.307	901.846
AKTIBOA	16.608.134	7.136.561	16.461.002	9.675.059
	0,053	0,151	0,004	0,093

Konparatzen ditugun Hotelen artean mozkinen gaineko zergetan diferentziak daude. %20a, %30a eta %40a gutxi gora beherako zergak ordaintzen dute aztertutako Hotelek eta horregatik BAI erabili dugu BAIDI erabili ordez, mozkinen gaineko zerga kontuan hartzen duena.

2010ean sozietateak %0,81eko errentagarritasun ekonomiko negatiboa lortu zuen. Hau da, urte hartan errentagarria ez zen. 2011.urtean %2'02ko errentagarritasuna lortu zuen eta 2012.urtean, joerari jarraituz %5,3ko errentagarritasuna lortu zuen. Enpresa errentagarria ez izatetik errentagarria izatera pasatu da.

Errentagarritasun ekonomikoa hazkuntza izan zuen 2011.urtean, negatibotik positibora aldaketa jasan zuen. Errentagarritasuna salmenten gaineko marjina aktiboen errotazioarekin biderkatuz lortzen denez, aldagai horietako batek edo biak izan behar dute aldaketaren arrazoia.

	2012	2011	2010
Hotel Amara	0,053	0,0202	-0,008
Hotel Londres	0,15	0,22	0,33
Village Park	0,004	-0,002	-0,014
Vitoria- Gasteiz	0,09	0,08	0,14

Beste Hotelekin konparatuta, Hotel Amara Plazak ez du ratio oso onak aurkezten. Village-Park Hotelak ratio baxuenak aurkezten ditu, 2010 eta 2011an galerak izaten baitzuen. 2012an mozkinak izan ditu, baina inbertitutako € bakoitzeko soilik %0,4ko errentagarritasun ekonomikoa lortu du. Hau da, errentagarria ez izatetik errentagarria izatera pasatu da azkenengo urtean, baina oso errentagarritasun txikia ematen du.

Ondoren Amara Plaza etorriko litzateke, aipatu dugun bezala errentagarria ez izatetik errentagarria izatera pasatu dela.

Geroago Vitoria-Gasteiz Hotela etorriko da, 2010ean %14ko errentagarritasuna zuena. 2011an egoera kaltetu egin zen eta ia erdira murriztu zen errentagarritasun ekonomikoa %8arekin eta 2012an %9arekin.

Bukatzeko, Hotel Londres geldituko zaigu, dudarik gabe egoera hobereana aurkezten duen Hotela izanik. Urteetan zehar errentagarritasun ekonomiko altua izan du, nahiz eta joera beherakorra izan. 2010.urtean %33ko errentagarritasuna zuen baina 2012rako %15eraino murriztu da, oraindik ere errentagarriena den Hotela izanik.

Kasu honetan, salmenten gaineko marjina positiboa izan zen (2010ean negatiboa) eta aktiboen errotazioak hazkuntza izan zuen.

2012an errentagarritasun ekonomikoa hazi egiten da baita ere. Salmenten gaineko marjina asko handitzen da eta aktiboen errotazioak ere hazkuntza izan du. horren ondorioz errentagarritasuna irabaziko da. Nahiz eta 2010eko errentagarritasuna negatiboa izan, joera egokia azaltzen du.

Salmenten gaineko Marjina

2012	Hotel Amara	Hotel Londres	Hotel Village-Park	Hotel Vitoria-Gasteiz
BAII	873.230	1.079.520	61.307	901.846
Salmentak	6.265.378	8.945.813	5.998.593	6.982.713
Marjina	0,139	0,121	0,010	0,129

	2012	2011	2010
Hotel Amara	0,139	0,058	-0,025
Hotel Londres	0,121	0,184	0,211
Village Park	0,010	-0,006	-0,051
Vitoria- Gasteiz	0,129	0,136	0,201

Aktiboen errotazioa

2012	Hotel Amara	Hotel Londres	Hotel Village-Park	Hotel Vitoria-Gasteiz
Salmentak	6.265.378	8.945.813	5.998.593	6.982.713
AKTIBOA	16.608.134	7.136.561	16.461.002	9.675.059
Errotazioa	0,377	1,254	0,364	0,722

	2012	2011	2010
Hotel Amara	0,377	0,348	0,317
Hotel Londres	1,254	1,185	1,572
Village Park	0,364	0,335	0,287
Vitoria- Gasteiz	0,722	0,623	0,689

Argi ikusten den bezala, Hotel Amararen salmenten gaineko marjina eta aktiboen errotazioa hazkuntza izan dute azkeneko 3 urteetan.

Hotel Amarak %2,5eko marjin negatiboa izatetik, 2012.urtean %13,9ko marjina izatera pasatu da. Aktiboen errotazioak izandako hazkuntza ez da hain esanguratsua izan, baina hazkuntza eman denez, positiboki eragingo du errentagarritasun ekonomikoan.

Bereziki marjinean gertatu den hazkuntza horren arrazoia finantza tresenek jasandako balio narriaduran oinarritzen da. 2010ean nahiz eta ustiapeneko emaitza oso ona izan, finantza tresnen balio narriadurak ekitaldiko emaitza negatiboa bihurtzen zuen. Nahiz eta 2011an balio narriaduraren zenbatekoa aipagarria izan %50 baino gehiagoko murrizketa jasan zuen. Horrek azaltzen du marjinak izandako hazkuntza eta aldi berean errentagarritasun ekonomikoak.

2012.urtean ustiapeneko emaitza handituko da eta gainera finantza tresnen balio narriadura murriztu egingo da baita ere. Horrela, eragin positiboa izango du marjinean.

Aktiboen errotazioak, enpresaren aktiboa urtean zenbat aldiz berritzen den adierazten digu. Hau da, saldutako moneta unitate kopurua, aktiboan inbertitutako moneta bakoitzeko. Salmentak / Aktiboa.

Salmentak konstante edo hazkuntza txiki batekin mantendu direnez eta aktibo totala murriztuta ikusi denez, aktiboen errotazioa handitu egingo da. 2010eko ekitaldian inbertitzen zen euro bakoitzagatik 0,32€ salmentetan bihurtzen ziren. 2011.urtean 0,35€

eta 2012.urtean 0,38€ saltzen ziren inbertitutako 1€ bakoitzarengatik. Aktiboan gauzatutako murrizketaren arduradunak ibilgetuaren amortizazioa, diruzaintza eta bezeroak izango dira. Horren ondorioz aktiboen errotazioa handituz joango da. Errentagarritasun ekonomikoa bi aldagai hauen menpe dagoenez, bietako batek, edo biak batera hazkuntza jasaten badute errentagarritasun ekonomikoa ere hazi egingo da, 2011 eta 2012.urteetan gertatu den bezala.

Beste Hotelekin konparatuz Hotel Amarak marjin oso ona aurkezten du 2012.urtean. marjinaren aldetik Hotel Londres eta Vitoria-Gasteiz Hotelak joera beherakorra aurkezten dute. Bestalde, Amara eta Village-Park joera gorakorra dute, nahiz eta Hotel Amarak duen hazkuntza handiagoa izan.

Aktiboen errotazioari dagokionez, Hotel Londresek aurkezten du egoera hoberena. Vitoria-Gasteiz Hotelak ere Amara Plaza baino egoera hobetagoa du. Hala ere, Amara Plazaren joera gorakorra eta konstantea izan izan da.

Errentagarritasun Finantzarioa. Apalankamendu Finantzarioa

Finantza apalankamendua, hazkuntza prozesuan edo hazkuntza prozesuan izan ez arren zein finantzaketa egitura den egokiagoa azaltzen digu. Erabilgarria behar den momentuan, baliabide propioetatik ateratzea edo hirugarrenei eskatzea zein den komenigarriagoa azaltzen digu (R2-R3). Apalankamendu positiboa ematen da azkenengo urtean, bestalde negatiboa ematen da 2010 eta 2011.ekitaldietan. Beraz, 2010 eta 2011an hazkuntza prozesuan egongo balitz, baliabide propioetatik finantzatzea komenigarria izango zen, 2012an bestalde hirugarrenek ematen duten finantzaketa komenigarriagoa izango da, errentagarritasuna irabazteko.

R1: Akziodunek jarritako 100€ bakoitzeko, 2010. urtean 4€ko galerak zituzten. 2011. urtean aldiz, akziodunek mozkinak ikusi zituzten, bereziki 100€ bakoitzeko 1€ mozkinetan. 2012. urtean 11€ko mozkinak izan dute akziodunek jarritako 100€ bakoitzeko.

R2: Finantzaketa kostu osoa. Baliabide propioetatik finantzatuta dakarren kostua. 100€ finantzatzeagatik, 2010. urtean -1€ bateko kostua sortzen zen, 2011.urtean 1,8€ eta 2012.urtean 7€.

R3: Enpresak kanpo finantzaketa erabiltzeagatik jasan behar duen kostua da. Hau da, 100€ko finantzaketa izateagatik 2010.urtean 1€ bateko kostua ordaindu behar zuen, 2011ean 2,2€ eta 2012an 1,5€.

	2012	2011	2010
r1= $\frac{\text{Mozkinak}}{\text{Bal. Prop.}}$	$\frac{1.023.387,00}{9.086.416,00} = 0,1126$	$\frac{106.169,00}{8.042.081,00} = 0,0132$	$\frac{-324.151,00}{7.935.911,00} = -0,0408$
r2= $\frac{\text{Mozk+ G.F. (1-t)}}{\text{B.P.+P.G.}}$	$\frac{1.120.058,52}{15.376.037,00} = 0,0728$	$\frac{285.510,20}{16.082.413,00} = 0,0178$	$\frac{-169.425,88}{18.265.113,00} = -0,0093$
r3= $\frac{\text{G.F. (1-t)}}{\text{P.G.}^1}$	$\frac{96.671,52}{6.289.621,00} = 0,0154$	$\frac{179.341,20}{8.040.332,00} = 0,0223$	$\frac{154.725,12}{10.329.202,00} = 0,015$

¹ Interesak sortzen duten pasiboak

	2012	2011	2010
Mozkinak	1.023.387	106.169	-324.151
Baliabide Propioak	9.086.416	8.042.081	7.935.911
Gastu Finantzarioa	134.266	249.085	214.896
Pasibo Galdagarria	6.289.621	8.040.332	10.329.202
Zerga tasa	0,28	0,28	0,28

Esan dugun bezala, 2010eko apalankamendu finantzarioa negatiboa zen. 2011.urtean ikusten den bezala, Baliabide propioak hazi egin ziren (nahiz eta zifra oso txikian) eta hirugarrenei eskatutako zorrak (kostua duena) murriztu egiten da 2.000.000€tan. Honek palanka ratioa txikitu egiten du eta ondorioz apalankamendu finantzario negatiboak ez du eragin oso handia edukiko. 2011.urtean erabaki egokiak hartu zituen Hotel Amara plazak, errentagarritasun finantzarioari dagokionez behintzat.

Esan dugunez, 2011.urtean errentagarritasun ekonomikoa positibo bilakatu zen, bereziki mozkinak izatera pasatu zelako. Nahiz eta finantza apalankamendua negatiboa izan, palanka ratioa 1 inguruan zegoenez, ez zuen eragin asko izan finantza apalankamenduan eta R2 finantza apalankamendua baino handiagoa izan zen errentagarritasun ekonomiko positiboa lortuz.

2012.urtean errentagarritasun ekonomikoa handitu egin zen. Mozkinak jasandako igoera esanguratsua (1.000.000) R2 handitu zuten eta horrekin Finantza apalankamendua positiboa bihurtu zen. Kasu honetan Baliabide propioak murriztu edo hirugarrenei eskatutako zorra handitu beharko zen, edo biak batera, palanka ratioa handituz eta horrekin errentagarritasun finantzarioa handitzeko asmoz. Urte honetan Baliabide propioak handitu eta pasibo galdagarria murriztu zen. Errentagarritasuna handitzeko egin behar den kontrakoa. Horren ondorioz palanka ratioa murriztuta ikusi da, baina lehen aipatu dugun bezala mozkinak eta pasibo galdagarriaren murrizketaren ondorioz R2 handitu zen eta horrek errentagarritasun finantzarioa positiboa izatea bermatzen du, nahiz eta errentagarritasun handiena ez izan.

	r1 =	r2	+	(r2	-	r3)	<u>P.G</u>
							<u>B.P</u>
2010 =	-0,0408 =	-0,0093 +	-0,0093 -	0,0150			<u>10.329.202</u>
							7.935.911
2011 =	0,0132 =	0,0178 +	0,0178 -	0,0223			<u>8.040.332</u>
							8.042.081
2012 =	0,1126 =	0,0728 +	0,0728 -	0,0154			<u>6.289.621</u>
							9.086.416

R1 negatibo izatetik positibo izatera aldatu da. Honen arrazoi nagusia R2ak izandako hazkuntza izan da. Errentagarritasun ekonomikoarekin gertatzen den bezala, R2 joera berdina mantentzen du, antzekoak baitira.

2011.urtean apalankamendu finantzarioa negatiboa zen. Palanka ratioa eragin handia ez izatea lortu zuen erabaki egokiak hartuz (errentagarritasun finantzarioari dagokionez) eta R2 oraindik ere apalankamendua baino handiagoa zen. Hori dela eta, 2010ean izandako errentagarritasun finantzario negatibotik positiboa bihurtu zen 2011.urtean.

2012an berriz, R2 hazkuntza joera mantentzen du eta gainera finantza apalankamendua positiboa bihurtzen da, $R2 > R3$ delako. Ondorioz R1 izandako hazkuntza esanguratsua.

Diru Fluxuen Egoera Orrien Analisia

Zerga aurreko emaitza azkenengo bi urteetan positiboa izan da. Enpresak aberastasuna sortzen du.

USDF: Ekitaldian kobratutako sarrerak eta ordaindutako gastuak erlazionatzen ditu. Erlazio positiboa izan da. Izandako emaitza positiboa diruzaintzan bihurtu du. Hotel Amara Plazak arrakasta izan du aplikatutako kobrantza eta ordainketa politikan. Kobruak aurreratzea eta ordainketak atzeratzea lortu du. Likidezia sortu du bere aktibitatearekin.

Inbertsio eragiketetan diruzaintza falta dago. Ordaindu beharrekoa kobratu beharrekoa baino handiagoa da. Ez da Ibilgeturik saltzen eta bestalde, nahiz eta txikia izan, erosketa gertatzen da ibilgetu materialean.

Finantzaketa eragiketetan ere diruzaintza beharra egon da, esanguratsua gainera. Taldeko enpresei ordaindutako zorrak oso altuak izan dira eta diruzaintza despoltsaketa nabaria jasan du Hotelak (2.537.955€ 2011.urtean eta 1.849.796€ 2012an).

Enpresa honek ustiapenaren kudeaketan sortzen du diruzaintza. Diruzaintza hori, inbertsio eragiketetan eta batez ere finantzaketa eragiketetan erabiltzen du (taldeko enpresekin zorrak ordainduz). Ustiapenean sortutako diruzaintza baino gehiago erabiltzen du inbertsio eta finantza eragiketetan, ez du nahikoa izan sortutako diruzaintza beharra estaltzeko. Horren ondorioz diruzaintzan dagoen dirua erabiliko du erabilgarria murriztuz.

2011.urtean diruzaintza murriztu zen, hau da, ustiapenean sortutako aberastasuna ez zen nahikoa izan taldekoei ordaindutako zorra estaltzeko. Beraz, taldekoei ordaindutakoaren zati bat diruzaintzatik atera zen, hain zuzen ere 820.004€. 2012.urtean arazo berdina dago eta diruzaintza 102.230€tan murriztu da. Ordaintzen den zorraren zatia txikiagotu egin da ere, goian ikusi dugun bezala.

Cash Flow

Hotel Amara Plazak egoera orekatua du. Enpresaren ohiko jarduerak baliabideak lortzen ditu eta kobrantza-ordainketa politika egokia aplikatuz sortutako baliabideak diruzaintza bihurtzea lortzen du. Ustiapenean eta kobrantza-ordainketa politikan arrakasta izan du. Hotel Amara Plazak likidezia nahikoa du.

DIAGNOSTIKOA

Beste Hotelekin konparaketa egin ostean, Hotel Amara Plaza nahiko egoera onean dagoela esango dugu.

Hotel Amara Plazaren egoera asko hobetu da azkeneko urteetan zehar. Nahiz eta enpresaren tamaina txikiagotuz joan ibilgetuaren amortizazioaren eraginez eta inbertsio berririk gauzatu ez dituelako, ekitaldiko emaitzak handitzen joan dira. Galerak izatetik mozkinak izatera aldatu da, eta nahikoa handiak gainera. Galera horien arrazoia, emaitza finantzarioa zen, gastu izugarria suposatzen zuena. Hotelaren ustiapeneko emaitza 3 urteetan zehar positiboa izan da, baina gastu finantzarioek emaitza hori asko txikitu dute. Taldeko enprekin dagoen zorra eta taldeko enpresetan egindako inbertsioaren balio galerak emaitza finantzario negatiboa handia egiten zuten. Hala ere, 2012.urtean finantza gastuak asko murriztea lortu da.

Ekitaldiko emaitzari buruz, nahiz eta 2010ean emaitza negatiboa izan, konparaketa egin ditugun Hotelen artean 2012.urtean emaitzarik altuena izan du. Egoera ona adierazten du.

Errotazio Fondoari dagokionez, ez du oso egoera egokia adierazten, baina Hoteleko gerenteak dioenez ez da larritzekorik. 2011.urtean behar finantzarioak izatetik 2012.urtean erabilgarritasun finantzarioa izatera pasatu da, baina hala ere, beste Hotel gehienek aldaketa berbera jasan dute.

Epe laburreko kaudimenean eta likidezian, nahiz eta oso ondo ez egon oraindik ere sektoreko beste Hotelen antzera dabil. Sektoreko Hotelek antzerako egoera jasan dute, beraz, ez dago urduri egoteko aztarnarik.

Erabilgarritasunean berriz, oso egoera ona azaltzen duela uste dugu, sektorearen ratio hoberenarekin.

Finantza Autonomia, zorpetzea eta epe luzeko kaudimenean ia egoera optimoa azaltzen du Hotel Amarak. sektore berbereko Hotelen baino ratio hobekoak baititu.

Errentagarritasun ekonomikoaren alorrean, sektorearen erdialdean kokatuko da. Ez ditu beste Hotel batzuek dituzten irabaziak izango, baina hala eta guztiz ere irabaziak izango ditu.

Orokorrean, ona da enpresaren finantza-egoera, bere zorrak ordaintzeko gaitasun osoa baitu, bai epe laburrekoak, bai epe luzekoak. Beraz, ez dago ordainketa-etenduraren arriskurik. Finantza-autonomia ere handia du enpresa honek, ez dagoelako bere pasiboaren menpe.


ETORKIZUNA

Hotel Amara Plazaren etorkizunari buruz hitz egiteko, sektorearen etorkizuneko egoera aztertu behar izango dugu batez ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko turismoa 2013.urtean ez zuen hazkuntzarik jasan aurreko urtearekin alderatuz. Gainera, etorkinen zenbatekoa murriztuta ikusi zen. Hala ere, 2013.urtea ez da hain txarra izan euskal turismoarentzat atzerriko jende gehiago etorri delako eta hauek diru gehiago gastatzen dutelako. Atzeritarrek, Espainiako etorkinek baino 55€ gehiago gastatzen dute bataz beste egunero, eta atzerriko etorkinen zenbatekoa zifra historikoa lortu du, etorkin osoen %40a izanik. Horren ondorioz sektorearen aktibitate ekonomikoa hobetu da nahiz eta etorkin gutxiago izan. Hala ere, Amara Plazaren Negozio zifren zenbateko garbia 2012.urtean izandako tendentzia jarraitu zuen %1eko hazkuntza izanda. Urte hartan, aktiboa amortizazioa eta narriaduragatik murriztuta ikusi zen orain arte gertatu zen bezala. Izakin eta bezeroen kontuak hazkuntza jasan zuten, bereziki bezeroen kontua %5ean handitu zelako. Diruzaintzak ere %5eko murrizketa izan zuen. Pertsonal eta ustiapeneko gastuak ia %2an hazi ziren eta emaitza finantzarioa murriztuz joan zen. Normalaenez, interesak sortzen duten zorrak ordainduz joan ahala, interes gutxiago ordainduko dira. Bereziki zorraren %20a ordaindu zen. Pasibo korrantea ere %15batean murriztu zen. Finantza tresnetan balio narriadurak ere joera beherakorra izan du, orain arte gertatu bezala. 2013.urteko ekitaldiko emaitza %1ean hazi zen.

Euskal gobernuak turismoaren estrategia atzerriko merkatuetan jarri nahi du, atzerriko etorkinen hazkuntza joera mantenduz. Helburua atzerriko etorkinen zenbatekoa handitzea eta Espainia bertako etorkinak ez murriztea behintzat izango da (El País).

2014.urteari dagokionez, hemen dugu lehen 6 hilabeteen etorkin kopurua:



Iturria: Eustat

Urtarrila eta Martxoa dira etorkin kopuru txikiagoa jasaten duten bi hilabeteak, batez ere 2013.urtean aste santua Martxoan izan zelako. Bestela, hazkuntza jasan dela aipatu dezakegu, eta gelditzen diren beste 6 hilabeteetarako hazkuntza mantentzea espero da. Honekin, jende kopuru gehiago etortzen bada, eta gainera gero eta atzeritar gehiago etortzen badira, sektorearen aktibitate ekonomikoa positiboki eragingo du.

Euskal Herrian hainbat aktibitate desberdin burutzen ari dira eta burutuko dira, Euskal turismoari bultzakada handia emango diotenak. Badakigunez, 2014ean Gasteiz gastronomia hiriburua bezala izendatu dute. 2014ko Europako kirol hiriburua Getxo izendatu zuten ere eta horrez gain, 2014ko Irailean ere Bilbo izango da Saskibaloiko mundialaren egoitza. Faktore hauek ere, Euskal Autonomia Erkidegoak jasaten ari duen hazkuntza laguntzen du.

Hoteleko gerentearekin hitz egin ondoren, 2014.urtean datu hobekoak ikusi direla aipatu digu. Ekitaldia, Negozio zifren zenbateko garbiaren %4ko igoerarekin itxiko dela espero da, 2013.urtearekin alderatuz, marjin handiagoa dagoelako kostuak murriztu baitira.

Amara Plaza Hotela inbertsio berririk egin gabe igaroko du urtea, baina amortizazioak ibilgetuan eragina izango du, %5a murriztuz. Izakinen aldetik orain arte izandako tendentzia berdina mantendu da.

Diruzaintzak 2013an izandako murrizketa txikiaren ondoren, 2014an hazkuntza txiki bat jasan du, %2koa hain zuzen ere. Aurreko urteetan izandako murrizketa handien ondorioz diruzaintza kontua garrantzia handia galdu du.

2013ko ekitaldiko emaitzaren banaketa orain arte izandako bezala izan da. Aurreko ekitaldietatik emaitza negatiboak gelditzen direnez horiek estaltzera bideratuko dira posibleak, beti ere posibleen %10a erreserba legeletara bidaliz legeak esaten duen bezala.

Taldeko enpresekin geratzen den zorraren %25eko zatia ordaindu da eta pasibo korronteko kontu gehienek bere joera mantendu dute, murrizketa txikiak izanda, gutzira pasibo korrontearen %15a murriztuz.

Finantza gastuak ere txikiagoak izango dira eta horrek ekitaldiko emaitzaren %2ko hazkuntza izatera lagunduko dio. Esan dugunez, salmentak %4ean igoko dira, baina ekitaldiko emaitza soilik %2an. 2014.urtean posibleen gaineko zerga negatiboa izango da eta ez du emaitza handiagotuko orain arte gertatzen zen bezala.

Hurrengo urteetara begira, tendentzia gorakorra jarraituko duela uste dut. Krisiaren amaiera gertuago ikusten da eta horrek ere turismoaren alde jotzen du. FMIk aurreikusi duenez, 2015.urterako Espainiako BPGa igo egingo da eta honek enplegu eta gastu gehiago sortuko ditu (elconfidencial).

Datu guzti hauek analizatuz, Hotel Amara Plazak 2015erako egoera hobetuko duela aurreikusi dezakegu. 2013tik 2014 urtera izandako aldaketa handiago izan zen 2015ean jasango duenarena baino (aurreikusiz), baina hala ere aurreikuspen positiboa da. Orain arteko informazioa oinarri bezala edukiz, 2015eko balantzea eta galdu irabaziaren aurreikuspena egin dugu.

Beraz, 2015.urterako Hotel Amara Plazaren Balantzea eta Galdu Irabazia horrela geldituko litzateke:

AKTIBOA	2015	2014	2013	2012
AKTIBO EZ-KORRONTEA	14.484.169,07	14.819.348,28	15.236.669,35	15.694.623,00
Ib. Ukiezina	16.859,00	19.083,00	13.879,00	15.389,00
Aplikazio informatikoak	16.859,00	19.083,00	13.879,00	15.389,00
Ib. Materiala	6.627.399,44	6.903.541,08	7.266.885,35	7.649.353,00
Lurrak eta eraikuntzak	5.440.081,41	5.666.751,47	5.965.001,55	6.278.949,00
Instalazio teknikoak eta bestelako I.M.	1.187.318,03	1.236.789,61	1.301.883,80	1.370.404,00
Epe luzeko inbertsioak taldeko entitateekin	7.514.394,63	7.571.208,20	7.630.389,00	7.704.365,00
Ondare Tresnak	7.514.394,63	7.571.208,20	7.630.389,00	7.704.365,00
Epe luzeko finantza inbertsioak	1.231,00	1.231,00	1.231,00	1.231,00
Ondare Tresnak	1.231,00	1.231,00	1.231,00	1.231,00
Zerga geroratuen aktiboak	324.285,00	324.285,00	324.285,00	324.285,00
AKTIBO KORRONTEA	989.013,54	951.161,17	928.602,85	913.511,00
Izakinak	127.263,25	121.203,10	120.122,00	118.924,00
Zordun komertzialak eta kobr. Best. Kontuak	585.236,94	573.761,71	557.050,20	530.524,00
Bezeroak salmentengatik eta zerbitzu emat.	585.236,94	573.761,71	557.050,20	530.524,00
Bezeroak, taldeko entitateak eta elkartutakoak	0,00	0,00	0,00	0,00
Administrazioekiko bestelako kredituak	0,00	0,00	0,00	0,00
Epe motzeko periodifikatzeak	13.145,00	13.145,00	13.145,00	13.236,00
Eskudirua eta bestelako aktibo likidoak	263.368,35	243.051,36	238.285,65	250.827,00
Diruzaintza	263.368,35	243.051,36	238.285,65	250.827,00
AKTIBOA GUZTIRA	15.473.182,61	15.770.509,45	16.165.272,20	16.608.134,00

O.G. ETA PASIBOA	2015	2014	2013	2012
ONDARE GARBIA	12.240.445,72	11.166.178,83	10.115.074,11	9.086.416,00
Fondo Propioak	12.235.208,72	11.155.704,83	10.099.363,11	9.065.468,00
Kapital Eskrituratuak	5.409.000,00	5.409.000,00	5.409.000,00	5.409.000,00
Erreserbak	7.371.459,89	7.263.739,41	7.158.317,98	7.055.024,00
Legal eta estatutarioak	1.963.191,89	1.855.471,41	1.750.049,98	1.646.756,00
Bestelako erreserbak	5.408.268,00	5.408.268,00	5.408.268,00	5.408.268,00
Aurreko ekitaldiko emaitza neg.	-1.622.456,01	-2.571.248,85	-3.500.894,70	-4.421.943,00
Ekitaldiko Emaitza	1.077.204,84	1.054.214,27	1.032.939,83	1.023.387,00
<i>Diru-Laguntzak, Dohaintzak, Leg.</i>	5.237,00	10.474,00	15.711,00	20.948,00
PASIBO EZ-KORRONTEA	2.377.492,87	3.756.909,15	5.048.872,93	6.347.122,00
Epe luzeko Hornidurak	42.044,00	42.044,00	42.044,00	42.044,00
Pertsonalaren epe luzeko lansarien obligazioak	42.044,00	42.044,00	42.044,00	42.044,00
Epe luzeko zorrak taldeko entitateekin	2.335.448,87	3.714.865,15	5.006.828,93	6.289.621,00
Zerga Geroratuengatik pasiboak	0,00	0,00	0,00	15.457,00
PASIBO KORRONTEA	855.244,02	847.421,48	1.001.325,16	1.174.596,00
Hartzk. Komertz. Eta OBK	855.244,02	847.421,48	1.001.325,16	1.174.596,00
Hornitzaileak	597.822,98	569.355,22	599.321,28	624.293,00
Hornitzaileak, taldeko entitateekin	0,00	0,00	0,00	74.311,00
Hainbat hartzekodun	38.191,02	40.201,08	50.251,35	60.661,00
Pertsonala (ordaintzeko dauden lansariak)	48.361,60	47.549,03	76.723,20	95.904,00
Administrazioekiko bestelako zorrak	57.372,00	86.744,00	173.488,00	216.860,00
Bezeroen aurrerakinak	113.496,42	103.572,16	101.541,33	102.567,00
O.G. ETA PASIBOA	15.473.182,61	15.770.509,45	16.165.272,20	16.608.134,00

	GALDU IRABAZIA			
	2015	2014	2013	2012
N. Z. ZENBATEK. GARBIA	6.567.990,75	6.581.153,05	6.328.031,78	6.265.378,00
Zerbitzu prestazioengatik	6.567.990,75	6.581.153,05	6.328.031,78	6.265.378,00
HORNIKUNTZAK	-783.986,94	-776.224,69	-768.539,30	-760.930,00
lehengaien kontsumoa	-783.986,94	-776.224,69	-768.539,30	-760.930,00
USTIAPENEK BEST. SARR.	170.029,32	171.746,78	159.024,80	144.568,00
PERTSONAL GASTUAK	-2.231.712,23	-2.300.734,26	-2.370.453,48	-2.323.974,00
USTIAPENEK BEST. GAST.	-1.768.779,45	-1.823.483,97	-1.878.741,06	-1.841.903,00
IB. AMORTIZAZIOA	-518.109,20	-507.950,20	-513.081,01	-508.001,00
IB. NARRIADURA ETA B.E.	-43.912,00	0,00	0,00	0,00
BESTELAKO EMAITZAK	4.191,92	3.810,84	3.175,70	2.887,00
USTIAPENENKO EMAITZA	1.395.712,16	1.348.317,55	956.241,73	978.025,00
SARRERA FINANTZARIOA	0,00	0,00	0,00	0,00
bestelako finantza tresnen sarrerak	0,00	0,00	0,00	0,00
gastu finantzarioak	-75.820,75	-84.458,48	-105.306,60	-134.266,00
taldeko enpresekiko eta elk. zorrak	-74.285,71	-82.539,68	-103.174,60	-132.529,00
hirugarrenetikiko zorrak	-1.535,04	-1.918,80	-2.132,00	-1.737,00
finantza tresnen narriadura	-56.813,57	-59.180,80	-73.976,00	-104.795,00
narriaturak eta galerak	-56.813,57	-59.180,80	-73.976,00	-104.795,00
EMAITZA FINANTZARIOA	-132.634,32	-143.639,28	-179.282,60	-239.061,00
ZERGA AUR. EMAITZA	1.263.077,84	1.204.678,27	776.959,13	738.964,00
MOZKINEN GAINEKO ZERGA	-185.873,00	-150.464,00	255.980,70	284.423,00
EKITALDIKO EMAITZA	1.077.204,84	1.054.214,27	1.032.939,83	1.023.387,00

Negozio zifren zenbateko garbia murrizketa txiki bat izango du, oso esanguratsua ez dena. Bestalde, kostuak ere murriztuta ikusiko dira eta ustiapeneko emaitza handiagotu egingo da, 2014.urtearekin alderatuz. Gastu finantzarioak ere joera berdina mantenduko dute eta guzti honekin ekitaldiko emaitza %2ko hazkuntza izango du.

Aktibo ez korronteak orain arte gertatu den bezala murriztuta ikusiko da, bereziki ibilgetuaren amortizazioaren ondorioz.

Aktibo korronteak bezero eta diruzaintzaren hazkuntzak izango ditu.

Ondare garbia aipatu dugun banaketaren ondorioz handituta ikusiko da.

Pasibo ez korrontea orain arte gertatu den bezala murriztuz joango da, taldeko enprekin dauden zorren zatia ordainduko delako, antzeko proportzioan.

Pasibo korrontea nahiko egonkor mantenduko da 2014.urtearekin konparatuz.

ONDORIOAK

Hemen, etorkizuneko datuekin izango duen egoera, ratioak eta errentagarritasunak aterako ditut:

ERROTAZIO FONDOA

	2015	2014	2013	2012
+Izakinak	127.263,25	121.203,10	120.122,00	118.924,00
+Bezeroak	585.236,94	573.761,71	557.050,20	530.524,00
Zirk. Finantz. Behar gordinak	712.500,19	694.964,81	677.172,20	649.448,00
- Hornitzaileak	-597.822,98	-569.355,22	-599.321,28	-698.604,00
Ustiapeneko E.F. Beharrak	114.677,21	125.609,59	77.850,92	-49.156,00
+Bestelako Akt. Zirk.	13.145,00	13.145,00	13.145,00	13.236,00
Periodifikatzeak	13.145,00	13.145,00	13.145,00	13.236,00
-Bestelako Pas. Zirk.	-257.421,02	-278.066,27	-402.003,88	-475.992,00
Hainbat Hartzekodun	-86.552,60	-87.750,11	-126.974,55	-156.565,00
Administrazio Publikoa	-170.868,42	-190.316,16	-275.029,33	-319.427,00
E.F. Beharrak	-129.598,81	-139.311,68	-311.007,96	-511.912,00
+Erabilgarria	263.368,35	243.051,36	238.285,65	250.827,00
Diruzaintza	263.368,35	243.051,36	238.285,65	250.827,00
ERROTAZIO FONDOA	133.769,54	103.739,68	-72.722,31	-261.085,00

2012 eta 2013.urteetan errotazio fondo negatiboa izango da. 2014 eta 2015.urteetan bestalde positiboa izango da. Enpresak behar finantzarioa sortzen du. Errotazio fondo negatibotik positibora pasatu dela ikusi dezakegu. Horrela jarraitzen badu egoera onean egongo da, eta ez da ordainketa etenduraren arazorik egongo. Aldaketa honen arrazoa pasibo korranteak izandako murrizketan oinarritzen da.

RATIOAK

	2015	2014	2013	2012
KAUDIMENA	1,156	1,122	0,927	0,778
LIKIDEZIA	1,008	0,979	0,807	0,676
ERABILGARRITASUNA	0,308	0,287	0,238	0,214

	2015	2014	2013	2012
FINANTZA AUTONOMIA	0,791	0,708	0,626	0,547
ZORPETZE RATIOA	0,264	0,412	0,598	0,828
KAUDIMENA	4,786	3,425	2,672	2,208

Ratioak aztertzerakoan, epe laburreko ratioa guztiak hazkuntza izan eta izango dutela estimatzen da. Enpresak bere zorrei aurre egiteko gaitasun handiagoa dauka. Berdina gertatzen da enpresak dituen baliabide likidoekin zorrak ordaintzeko gaitasunarekin. Azkenik, Diruzaintzaren ratioa handitu egiten da baita ere. Pasibo korrontea murriztuta ikusi da eta bestalde aktibo korrontea handituz joan da, berdina diruzaintzarekin.

Epe luzean, enpresak bere zor eta betebeharrei aurre egiteko gaitasun handiago du eta izango du. Enpresak erabakiak hartzeko botere gehiago du eta izango du eta bestalde zorpetze ratioa gero eta txikiago da, finantzaketa berririk ez dagoelako eta zorrak ordaintzen ari direlako.

Ratioak begiratuta, Hotel Amara Plazak egoera ezin hobea aurkezten du. Badirudi joera hau etorkizuneko urteetan zehar iraungo duela.

ROI. ERRENTAGARRITASUN EKONOMIKOA

	2015	2014	2013	2012
ROI	0,0865	0,0817	0,0546	0,0526
Marjina	0,2039	0,1959	0,1394	0,1394
Errotazioa	0,4245	0,4173	0,3915	0,3772

Errentagarritasun ekonomikoa handitzen joan da. 2013.urtean oso hazkuntza txikia nabaritu da 2012.urtearekin, baina 2014an hazkuntza nabaria egon da. 2014ko urtea hobetua izango dela aipatu dugu lehenagotik eta errentagarritasunean ikusi dezakegu hala izan dela. 2015ean ere hazkuntza fasean jarraitzen du, baina ez da 2013tik 2014ra izandako hazkuntza bezalako, txikiagoa baizik. Errentagarritasun ekonomikoaren hazkuntzaren arrazoia salmenten gaineko marjinak eta aktiboen errotazioak jasan duten hazkuntzan egongo da. BAI aldagaiarekin kalkulaturako mozkinak salmentak baino proportzio handiago batean hazi dira. Bestalde, salmentak igo eta aktiboa murriztu egin da, aktiboen errotazioa hobetuz.

ERRENTAGARRITASUN FINANTZARIOA

	2015	2014	2013	2012
r1=	0,0880	0,0944	0,1021	0,1126
r2=	0,0776	0,0749	0,0733	0,0728
r3=	0,0234	0,0164	0,0151	0,0154

	r1 = r2	+	(r2 - r3)	P.G
				B.P
2013 =	0,1021 = 0,0733	+	(0,0733 - 0,0151)	5.006.829
				10.115.074
2014 =	0,0944 = 0,0749	+	(0,0749 - 0,0164)	3.714.865
				11.166.179
2015 =	0,0880 = 0,0776	+	(0,0776 - 0,0234)	2.335.449
				12.240.446

Errentagarritasun finantzarioaren aldetik, errentagarritasuna galtzen joan dela eta oraindik gehiago galduko duela estima dezakegu. Apalankamendu positiboa izan du azkenengo urteetan eta izango du 2015an ere. Hori jakinda, errentagarritasun finantzarioa irabazteko asmoz, pasiboa handitu beharko litzateke edo baliabide propioak murriztu, edo biak batera. Ikusi dezakegun bezala, Hotel Amarak kontrako erabakiak hartu ditu. Pasiboa handitu ordez murriztuz joan da eta baliabide propioak txikitu ordez handituz joan da. Horren ondorioa errentagarritasun finantzarioaren murrizketa izango da. Badakigunez Hotel Amara Plaza talde baten barruan dago, eta azkenean, taldeko matrizeak esaten duena egingo du. Taldeko matrizeak zorrak ordaintzea komenigarriago ikusten badu hala egingo du, nahiz eta Hotel Amararen errentagarritasun finantzarioa izorratu. Hala ere, 2015ean izango duen errentagarritasun finantzarioa oraindik ere esanguratsua izango da.

Datu guzti hauek ikusita, Hotel Amara Plazak egoera ona aurkezten du eta joera hori mantenduko duela espero daiteke.

Hotelen sektorearen egoera eta Hotel Amara Plazaren egoera ikusita, krisi ekonomikoak eragin handia izan duela sektorean esan dezakegu.

2010.urteko ekitaldiko emaitza negatiboa izan zen, nahiz eta ustiapeneko emaitza positiboa izan. Honen arrazoia finantza tresnetan izandako balio narriaduragatik batez ere izan zela ikusi genuen.

Diruzaintzak ere murrizketa handia izan zuen 2011.urtean, taldeko enpresekin zorrak ordaintzeagatik.

2012.urteetik aurrera Hotel Amara Plazaren egoera hobetu egin da eta joera horrekin jarraituko duela uste dugu. Betidanik Hotelaren esplotazioak likidezia sortu du eta gainera 2012.urteetik aurrera emaitza finantzarioa murriztu du.

Bestalde, Inbertsio berririk egin ez duela badakigu, eta horren ondorioz bere aktiboa murriztuta ikusi da urtez-urte ibilgetuaren amortizazioari esker.

Hurrengo urteetarako sentrazio positiboak daudela antzematen da. 2013, 2014 eta 2015eko ekitaldiko emaitzak positiboak direnez, enpresaren ondare garbia handitzen joango da, aurreko ekitaldietako emaitza negatiboa kontua murrizten joango delako, eta hala jarraituko duela uste dut etorkizunean.

Aurreikuspenen ondorioz, errotazio fondo positiboa lortuko du, eta gainera nahiko konstante. Epe motzeko kaudimena, likidezia eta erabilgarritasun ratioak hobetuko ditu eta gainera joera gorakorarekin jarraituko duela antzematen da. Berdina gertatzen da epe luzeko finantza autonomia, zorpetzea eta kaudimen ratioekin, hazkuntza edo murrizketa eraginkorra izango dutela.

Errentagarritasun ekonomikoaren ikuspuntutik, salmenten gaineko marjinak hazkuntza joera mantenduko du aktiboen errotazioak bezala. Horren ondorioz errentagarritasun ekonomikoa handitzea espero da.

Hala ere, enpresaren egoera hobetzen ari denez normala da errentagarritasun finantzarioa murriztu egingo dela pentsatzea. Enpresak ematen duen segurtasuna gero eta handiagoa bada, errentagarritasun finantzarioa txikiagoa izango da. Kasu honetan, epe luzeko zorrak desagertzen joango dira eta aldi berean apalankamendua txikitzen joango da, errentagarritasun finantzarioa murriztuz.

Sektore berebereko Hotelekin konparatuta egoera ona aurkezten du, baina oraindik egoera hobetuzko duela estimatzen dugu. Hotel Amara Plazak bere aktibitatearekin jarraitzeko arazorik izango ez du. Oraindik ere bere aktibitatea hobetuko duela estimatu dezakegu.

BIBLIOGRAFIA

Euskadi.net. Web orria. Apirilak 8, 2014 Eskuragarri:

http://www.irekia.euskadi.net/es/news/3853-140-establecimientos-turisticos-cuentan-con-sello-accesibilidad-euskadi?criterio_id=774344&track=1

Eustat. Web orria. Otsailak 24, 2014 Eskuragarri:

www.eustat.es

Diario Vasco. Web orria. Martxoak 20, 2014 Eskuragarri:

<http://www.diariovasco.com/v/20111206/al-dia-sociedad/gastronomia-gran-reclamo-turistico-20111206.html>

Hosteltur.com Web orria. Maiatzak 23, 2014 Eskuragarri:

http://www.hosteltur.com/185790_pais-vasco-destina-9-m-ayudas-al-sector-turistico.html

El País. Web orria. Ekainak 5, 2014 Eskuragarri:

http://cultura.elpais.com/cultura/2011/06/28/actualidad/1309212001_850215.html

El Mundo. Web orria. Irailak 2, 2014 Eskuragarri:

<http://www.elmundo.es/elmundo/2012/06/26/paisvasco/1340728560.html>

El País. Web orria. Maiatzak 23, 2014 Eskuragarri:

http://ccaa.elpais.com/ccaa/2014/05/11/paisvasco/1399825872_574121.html

El País. Web orria. Ekainak 2, 2014 Eskuragarri:

http://elpais.com/diario/2002/01/23/paisvasco/1011818408_850215.html

El Confidencial. Web orria. Uztailak 27, 2014 Eskuragarri:

http://www.elconfidencial.com/mercados/inversion/2014-07-24/el-fmi-mejora-las-previsiones-de-espana-y-empeora-las-de-la-economia-mundial_167738/